

Arrasate

1997ko
apirilak 18
359. zenb.



Askagintzak,
droga-menpekotasunen
inguruan lan egiten duen
taldeak, urtero
antolatzen duen jaia
aurten Arrasaten

Bizirik Eguna

Drogen aurrean prebentzioa



LAGUN TALDE BAT LABURMETRAIA EGITEN HERRIAN

muebles

ARKAUZ

**Erakusketaren
berrizketa**

**ALTZARIAK-DISEINUA
APAINKETA**



**Modelo
rustikoetan
aukera
zabalena**



**LARUNBAT
ARRATSALDETAN
ZABALIK!**

ARETXABALETA

Araba Etorbidea, 20 • Tel. eta Faxe: 79 23 51

Euskara teknologia digital berrien testuinguruan

Informazioaren eta komunikazioaren teknologia bizitza erabat aldatzen ari dira, informazioa prozesatzeko, biltzeko eta transmititzeko ahalmen handia dutelako eta informazioa tratatzeko eta zabaltzeko era berriak eskaintzen dituztelako.



Aitor Orobengoa

Industria digitala orain 30 urte sortu zen. Azken urteetan, teknologi aurrerapenen eraginez, ikusentzunezko teknologien, informatikaren eta telekomunikazioen bategitea gertatu da, multimedia-teknologia sortu dutelarik.

Europako komisiarioak, Bangeman jaunak adierazten duenez, gizakiaren komunikazioaren izaera izugarri aldatu da bata bestearen atzean gertatu diren hiru iraultzaren eraginez:

Lehena idazketa-

sistemak asmatzearekin etorri zen.

Bigarren iraultza inprenta mekanikoak ekarri zuen.

Gaur egun hirugarren iraultzan murgilduta gaude eta denetarik erabatekoena dela esan beharra dago, oinarri informatikoko teknologien bidez pertsonak berehala eskura baitezakete

mundu osoko informazioa. Eratzen ari den informazioaren gizartean, hizkuntzaren zeregina aldatzen ari zaigu eta sekula baino sakonago, testua, irudiak eta hotsak elkartzen dituen komunikazioaren ondorioz.

Euskaldunok teknologia digital berriek eskaintzen dituzten aukera berrietan berdintasunez parte hartzeko eskubidea dugu. Teknologia horiek Euskal Herriko hizkuntz, kultur eta histori ondarearen defendatzaile bihurtu behar dira.

Horrenbestez, hil ala bizikoa da Administrazio Publikoak bere azterketa estrategikoetan "informazioaren gizartean" hizkuntzak duen tratamenduarekin zerikusia duten alde guztiak kontuan hartzea:

- Hiritarrek eta gure Kulturak eta Hizkuntzak "Informazioaren gizartean" aurrerapen globalen onura jasotzea, informazioa sortu, trukatu eta eskuratzeko.

- Kontsulta-elementuak hiritar bakoitzaren hizkuntzan sortzea.

- Gure herriaren hizkuntz, histori eta kultur corpusaren etorkizuneko transferentzia, hizkuntz nagusiekiko diskriminaziorik gabe egitea.

Informazioaren gizartean erabakiorra izango da teknologia digital berrietan Euskararen presentzia. Hizkuntzari ondo egokitutako planteamendua egiteak barruko merkatuaren funtzionamendua hobetzen lagunduko du, Euskal Herriko hizkuntza ofizialen arteko komunikazioa erraztu egingo baita; eta, gainera, hiritarrek erabat parte hartzeko aukera izango dute. ■

"Hil ala bizikoa da Administrazioak gizartean hizkuntzak duen tratamenduarekin zerikusia duten aldeak kontuan hartzea"

ARKO
ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzaileak: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñatorra kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzaileak: Arnasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubilaga, Maider Egües, Marian Porcel. **Publizitateak:** Alberto Garro, Kaitlin Allende (Tel.: 77 08 15). **Administrazioak:** Ikerme Altube (Tel.: 79 02 26) **Diseinua:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurela, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Fidel Berezibar, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Virginia Urkiola, Jabi Luengo, Maite Barrena. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Frankoeko kontzentratua.** **Inprimategia:** Gerfu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta intzientzian erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Goio Arana.

359. zenbaki honetan

1997ko apirilaren 18an

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen	10/12	Kulturaren txokoa	26/27
Irakurlea idazle	6	Txutxumutxuak.....	14/15	Azoka plaza	28/29
Inkesta.....	7	Asteko gaia	17/19	Ikusi eta entzun	33
Euren ikuspuntutik	8	Kirolak jokoan.....	20/23	Foto zaharra	34

Ikuspegia
Aitor Orobengoa **3**

Euren ikuspuntutik
Amaia Alberdi..... **8**

Aurrez aurre
Kontxita Ardanaz..... **24/25**

Hogeita hamar galderatan
Moises Cruz **30**

Kulturaren txokoa
Laburmetraigintzan Arrasaten **26/27**

Asteko gaia
Bizirik Eguna.
Drogen aurrean prebentzioa **17/19**

18

ostirala

■ ZINEA

Ridicule Alai zinemaren 7etan eta 10etan.

■ EKINTZA AKADEMIKOA
ESKOLA POLITEKNIKOAN

Eskola Politeknikoko Injineruei diploma banatzeko ekintza Akademikoa arratsaldeko 5.30etan Eskolako Areto Nagusian.

19

larunbata

■ ZINEA

Michael Collins Alai zinemaren 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ BIZIRIK EGUNA

Arratsaldeko 4etatik 10.30ak arte ekintza ugari Monterronen eta Udaletxeke Plazan. Egitaraua ikusi 18. orrialdean. Askagintzak antolatuta.

■ ALTAMIRAKO JAIK

Goizeko 10.30etan jaien hasiera. 11.30etan umeendako jolasak. 4.30etan marrazki lehiaketa. 6.30etan dantzak eta jubilatuei omenaldia. 7etan meza. 7.15etan buruhandiak. 10etan dantzaldia *Txinparta* taldearekin.

20

igandea

■ ZINEA

Michael Collins Alai zinemaren 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ ZIKLOTURISTEN
IRTEERA

Ibilbidea: Arrasate, Aramaio, Legutio, Zubizabal gaita, Barazar, Landa eta Arrasate. Irteera goizeko 9.30etan Monterrondik

■ ORKATZ TALDEAREN
ZILARREZKO EZTIAK

Mendi irteera Besaidera. Irteera goizeko 8.30etan Arbolapetatik. 11etan Meza eta 11.30etan jokoak.

21

astelehena

■ ZINEA

Michael Collins Alai zinemaren 7etan eta 9.30etan.

■ KONTZERTUA ETA AN-
TZERKIA ERGUIN ESKOLAN

Arrasate Musikalen kontzertua eta umeendako antzerkia Erguin Eskolan arratsaldeko 6etan. Beste hainbeste 22an eta 23an.

■ HITZALDIA

Gaia: hezkuntza sexuala. Hizlariak: Andina Colman eta Diana de Marini. Arratsaldeko 6etan Pleno aretoan.

22

asteartea

■ ZINEA

Michael Collins Alai zinemaren 7etan eta 9.30etan.

■ HITZALDIA

Gaia: emakume menopausikoa. Hizlaria: Jose Joakin Astola medikua, Eskualde Ospitaleko Ginekologi Zerbitzuko arduraduna. Arratsaldeko 5etan Batzokiko aretoan. EAJko emakumeak antolatuta.

■ KAFE TERTULIA

EKIN emakume taldearen lokalean arratsaldeko 5etatik 7etara. Gaia: sexualitatea.

■ ERAKUSKETA
SAN VIATORREN

Liburu zaharren erakusketa San Viator handiko mediatekan. Erakusketa apirilaren 24a arte egongo da ikusgai. Orduategia: arratsaldeko 7.30ak arte.

■ ORKATZ TALDEAREN
ZILARREZKO EZTIAK

Diapositiba emanaldia Monterronen arratsaldeko 7etan.

23

asteazkena

■ NAZIOARTEKO
LIBURUAREN EGUNA

Liburutegia azokara eramango da goizean.

■ HITZALDIA
MONTERRONEN

Gaia: poesia edo iraultza, Leopoldo Maria Panero. Hizlaria: Túa Blesa, Zaragozako Unibertsitateko literatura irakaslea. Monterronen arratsaldeko 7etan. Udal Liburutegiak antolatuta.

■ KONTZERTUA

Arrasate Musikaleko emanaldia Santa Agedako Emakumeen egoitzan arratsaldeko 5.30etan.

■ HITZALDIA
UMEZAINTZAN

Gaia: Gurasoen papera 0-3 urtera arteko umearen garapen eta heziketan. Hizlaria: Maite Garcia. Arratsaldeko 6etan Umezaintzan. 23an beste hainbeste, 3-6 urtekoen gurasoendako.

24 osteguna

■ **ZINE KLUBA**

Sostiene Pereira Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Sarrera 400 pta. eta gazte txartelarekin 350 pta.

■ **EAREN BATZARRA**

Ohiko hiri batzarra Arrasateko Elkartetxean arratsaldeko 7etan. Afiliatu guztiak daude gonbidatuta.

■ **KAFE TERTULIA**

Famili eta Gizarte Hezketarako zentruan arratsaldeko 4etatik 6ak arte. Gaia: sexualitatea.

■ **MAHAINGURUA SAN FRANTZISKO XABIER IKASTOLAN**

Gaia: Zer eman dizu kirolak. Zer eman diozu zuk? Hizlariak: Iñaki Perurena, Julian Retegi, Bittor Alkiza eta Antton Gorrotxategi. Moderatzailea: Asier Aranguren. Arratsaldeko 6.30etan Gazteluondoko aretoan.

■ **MENOPAUSIA TAILERRAREN HASIERA**

Apirilaren 24tik ekainaren 19a arte ostegunero arratsaldeko 4.45etatik 6.45ak arte. Izenematea Emakume Sailean, 79 41 39 zenbakian.

■ **SEXUALITATE TAILERRA**

Maiatzaren 13tik 29ra, astearteetan eta ostegunetan arratsaldeko 6etatik 8ak arte. 25-45 urte arteko emakumeei zuzenduta. Izenematea Emakume Sailean (79 41 39) eta Gazte Bulegoan (77 00 65).

■ **CC.OO SINDIKATUAREN OHARRA**

CCOO Sindikatuak autobusa antolatu du maiatzaren 1ean Donostian egingo den manifestaziora joateko. Izenematea sindikatuaren egoitzan apirilaren 28a baino lehen. Ondoren bazkaria Sagardotegi batean.

■ **LIBURU HONDATUEN FERIA**

Liburutegiak hondatuta dauden edo erabiltzen ez diren liburuak doan emango dizkie bazkideei. Udal Liburutegiko bazkide txartela aurkeztu behar da. Lekua Monterronen. Orduategia: goizeko 11etatik ordubata arte eta arratsaldez 5etatik 8ak arte

■ **UDAKO KIROL ESKOLA**

Deba Bailarako Udal Euskara eta Kirol zerbitzuek Udako kirol eskola antolatu dute kirol moduan euskararen presentzia areagotzeko. Ikastaroa uztailaren 14tik 18ra emango da. Atletis-

mo eta futbol ikastaroak Eibarren emango dira, pilotakoak Aramaion eta Arrasaten, Bergaran eskubaloi ikastaroa eta Mutrikun irakasleen erreziklajea. Informazio gehiago jasotzeko deitu Musakolako kiroldegira 79 04 27 zenbakira.

■ **V. KOMIKI LEHIAKETA**

12 urtetik gorako edonork har dezake parte. Lan guztiak argitaragabek, euskaraz idatzita eta originalak izan behar dute. Lanak aurkezteko epea ekainaren 6an bukatuko da. Helbidea Jardun Elkartea Masterreka 13-behea 20.570 Bergara. Jardunek antolatuta.

■ **ORKATZ TALDEAREN ZILARREZKO EZTIAIK**

Apirilaren 26rako jai berezia antolatu dute. Diapositiba emanaldiak,

jolasak, dantzariak, eta beste hainbat gauza egongo da. Eguerdiko 2etan berriz bazkaria antolatu dute Herriko Plazan. Bazkarira joateko prezioa 1.500 pta. eta txartelak Hiren, Xaramelan, Monten eta Aterpen eros daitezke.

■ **AITA MENNIKO EKINTZAK**

Apirilaren 19tik 26a arte era guztietako ekintzak antolatu dira Aita Menin. Abesbatzak, magia erakustaldiak, antzerkiak, eta musika emanaldiak besteak beste.

■ **LELO LEHIAKETA**

Gazteen euskararen erabilera sustatzeko sentsibilizazio kanpainarako kaleratu den Lelo lehiaketako lanak aurkezteko azken eguna, apirilaren 21a astelehena. Irabazleak 10.000 pta. jasoko ditu.



■ **ALTAMIRAKO JAIK**

Larunbatean goizeko 10etatik aurrera jai giroan murgilduko dira Altamirako bizilagunak. Ondo pasatzeko era guztietako ekintzak izango dituzte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 18

• Gaez: Corcuera, Musakola.

Larunbata 19

• Gaez: Irizar, Erguin.

Igandea 20

• Gaez: Amezua, Santamaina.

Astelehena 21

• Gaez: Ruiz, Maala.

Asteartea 22

• Gaez: Morales, San Andres.

Asteazkena 23

• Gaez: Azkoaga, Ferrerías.

Osteguna 24

• Gaez: Español, Iturriotz.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. . . 79 53 00
Iguatorialdia . . . 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) . . . 79 39 00
(emakumeak) . . . 79 44 11
Buru osasunerako zentrua . . . 79 90 11

Gurutze Gorria

Bergara . . . 76 55 76

DYA

Antzuola . . . 78 71 57

Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdiak) . . . 79 13 57
• Txanda hartzeko: mezikuntza
orokorra eta pediatria . . . 77 03 46
• Espezialitateak . . . 77 05 78
. . . 77 12 64
Oñati . . . 78 08 52
Eskoriatza . . . 79 98 58
Aretxabaleta . . . 79 74 58
Aramaio . . . (945) 45 51 16

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz . . . 45 87 44

Udaltzaingoa

Oñati . . . 78 04 11
Bergara . . . 76 14 69
Arrasate . . . 79 14 39
Aretxabaleta . . . 79 10 52
Eskoriatza . . . 088

Ertzaintza

Arrasate . . . 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea . . . 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua . . . 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea . . . 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) . . . 79 09 00
Elektrizitatea (iberduero) . . . 12 01 62
Gasa . . . 900 40 05 23
. . . 79 78 44
. . . 79 76 78

Garraioak

Taxiak . . . 79 12 22
PESA . . . 79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak

Iturbide Egoitza . . . 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza . . . 79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa

KIUB-OMIC . . . 79 51 55

Monterrongo liburutegia

Monterron . . . 77 01 05

Irratia

Arrasate Irratia . . . 79 58 77

ELKARTASUNA ZUBEROAKO EPERRA IKASTOLAREKIN

Azken 4 udatan Arrasateko makina bat gaztek hartu du parte Iparraldeko auzo-landegietan, 15 egunez ikastolari laguntzeaz gain, bertako egoera eta bizimodua gertutik ezagutzeko parada izan dutelarik. Iaz, Iparraldeko egoerari buruz ezer gutxi nekiela, neuri egokitu zitzaidan hauen antolakuntzan jardutea. Hala ere, Aste Santuan izan dut lehenengo aldiz berauetan parte hartzeko aukera, 3 egunez Mauleko Eperra ikastolako egoitza berriaren egokitze lanetan lagunduz.

Programa sinplea izan da: 8.30etan jaiki, ondo gosalduta bederatzietarako ikastolara! Ordubata arte lanean ibili, ordu pare bat bazkaltzeko eta buelta ikastolara, arratsaldeko 7ak aldera arte. Atxurra, pikotxa eta pala izan dira gure lanerako tresna nagusiak, porlana egiten eta leiho eta ateak pintatzen ere ibili gara. Guztira Hegoaldeko 40 bat lagun ibili gara lanean, egia esan, lagun larregi egin zitekeen lanerako. Pikotxak eta atxurak faltan zeuden, beraz tresnak banatu eta lanerako txandak egin behar izan genituen, nire bizkarraren onerako. Eta honela dabilta Mauleko ikastolako 67 haurren gurasoak, asteburua joan asteburua etorri, hesiak jarri, hormak bota eta berriak altxatu, zorua jarri, pintatu, josi... eta beste makina bat lanetan, irailan umeak ikastola berrira joan ahal izan daitezten. Gurasoek ez dute denborarik

bizkarreko minentzat! Gauza bat garbi atera dut Aste Santuan, lanerako jende asko prest dago baina baliabideak falta dira. Eta honela, Eperra ikastolak dirua lortzeko antolatua duen kanpainari erantzunez, nafar batek ikastolari 600 kilo ezti oparitu dizkio. Hauetatik 48 kilo etorri ziren Arrasatera eta agudo saldu ere! Lagun askok deitzen du oraindik ezti erosi

guran, baina ezti goxoa bukatu da.

Hala ere, 67 ume hauen bizitza goxotu nahi izanez gero, animatu gura zaituztet ikastolara-ko atera berri ditugun 1.000 pta.ko laguntza bonoak erostera. Bono hauek AEDn erosi ahal izango dituzu, ziur egon Eperra ikastolako haurrek eskertuko dizutela!.

Jasone Mendizabal

Gutunen araudia

Erredakziora iristen diren gutunetan ematen diren iritziak balio handiagoa izan dezaten eta arazorik sortu ez dadin, gutunetako sailean araudi berria ezarri dugu.

Edozein gutun argitaratu ahal izateko honako baldintza hauek bete beharko ditu nahi eta nahiez:

- Egilearen izenaz argitaratuko ditugu. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde-izena onartuko da.

- Gehienez jota, 30 lerroko gutunak onartuko dira. Hortik gorakorik balego, erredakzioak laburtzeko eskubidea du. Aurrez egilearekin harremanetan jartzeko saiatuko gara.

- Anonimo, gaitzizenez edo inisialez datozenak ez dira argitaratuko.

- Ez da lekurik gordeko. Erredakziora ailegatutako ordenean kaleratuko dira gutun guztiak.

- Gutun iraingarriak ez dira argitaratuko.

- Egilea bera dela egiaztatzeko, gutuna ekarri edo bidaltzen duenak berarekin harremanetan jartzeko modua adierazi beharko du bertan. Telefono zenbakia nahikoa da.

Memesa
79 42 22

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

HIES
EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tel.: 79 26 99

Drogen aurrean zer egin daiteke?



Naira Vitoria
Langilea
(22 urte)

Zaila da horri erantzutea, baina uste dut legeztauz gero ez litzatekeela hainbeste arazo egongo eta jendeak libreago kontsimutuko lituzkeela drogak. Beste aldetik, legeztauta kontsumitzera bultzatzeko arriskua dago.



Joe Mcneill
Irakaslea
(30 urte)

Guztiak legeztauz eta kontrolatu. Leku ofizialetan saldu beharko lirateke drogak, eta kontsumitzen dituztenak kontrolatu, adibidez, txartelen bidez.



Amaia Pagaldai
Irakaslea
(36 urte)

Drogekin arazoa dutenei laguntza handiagoa eman beharko lieke gobernuak. Bestalde, gazte-gaztetatik gehiago informatu beharko litzateke.



Lorenzo Posadas
Langilea
(57 urte)

Tabakoa eta ardoa bezala drogak ere legeztauz, bestela txarrago da eta. Bestalde, jendea kontzientziatu, ez ditzan kontsumitu.



Flor Frutos
Ikaslea
(26 urte)

Arazoa hain zabala da, baina uste dut legeztauta gutxiago kontsumituko liratekeela.



Antonio Blaco
Ikaslea
(21 urte)

Beharbada legeztauz, horrela trafikanteen negozioa beharra etorriko litzateke. Gainera, merkeagoak izango lirateke eta farmazietan salduta gaisotasunak hartzeko arrisku gutxiago egongo litzateke.



Mar Carmona
Langilea
(31 urte)

Batzuk legeztauz egin beharko lirateke. Droga arriskutsuekin, berriz, gogorragoak izan eta batez ere trafikantzen dutenekin.



Adolfo Carmona
Jubilatua
(63 urte)

Zer egin daiteke? Horixe da galdera. Saltzen dutenak harrapatu eta barrura sartu? Hori behintzat bai.



REPLAY
MADE IN ITALY

MAZA

B O Y S

ERDIKO KALE, 42 • TEL.: 79 14 53 • ARRASATE

SOVIET
URBANTRIBE

Levi's

GUESS®

USTEAK USTE

*Sindikatu
elkartasuna*

Bere garaian pozik ikusi nuen ELA eta LAB euskal sindikatoen arteko akordioa, bereizten gaituzten gauzak alboratu eta elkartzen gaituztenak hartuta aurrera egitea. Euskal-dunondako eredu ona izan zitekeela pentsatu nuen, eta (oso oker ez banago) lerro hauetatik txalotu ere egin nuen.

Orain aste batzuk ELAko militante baten erahilketaren aurrean LABek hartutako jarreraren ondorioz, kolokan egon da sindikatu bien arteko elkarlana. Ordutik, sindikatu bien artean egindako lokarra apurtu egingo zela pentsatu izan dut, azken urte honetan egindako lana pikutara joango zela. Zorionez, gaur goizean Egunkaria hartu dut eskuetan eta begirada lehen berrira joan zait: ELA eta LABek elkarrekin egingo diote aurre lan erreformari.

Poztu egin naiz. Benetan. Badakit maiatzaren 1ean ez direna elkarrekin egongo, baina etenik ez da egon, eta hori ez da gutxi. Hasiera hasieratik garbi zegoen egin beharreko bidean zailtasun ugari agertuko zirela. Borondatez egin behar aurre.

Beñardo Kortabarria



Orkatz Skaut taldearen 25. urteurrena

Amaia Alberdi

Atzera begiratu eta nork ez du gogoratzen Arrasateko Skaut taldea sortu zeneko eguna?

Jadanik hogeitabost urte igaro dira neska-mutilez osatutako koskor talde bat sortu zenetik. Horregatik, gaur egun oraindik Skaut-ean jarraitzen dugunok hogeitabost urte hauek merezi duten ospakizuna antolatzea erabaki dugu, taldeko partaide ohien laguntzarekin. Bertan, denbora luze honen buruan pasatutako abentura guztiak gogoratu eta zenbait anekdota barregarriekin solasean ordu alai batzuk igarotzea dugu helburu.

Talde hau belau-naldiz belau-naldi transmititutako izpirituaz atera da aurrera, gazteenek nagu-

siengandik ikasitakoa praktikara eramanez. Beste talde gehienetan ez bezala, etapa luze bat suposatu du eta suposatzen du oraindik bertako partaide izateak, beraz, txikitatik arduradun izaterainoko bidea jorratuz, aldi bakoitzean norberari dagozkion eginkizun eta ardurak onartuz, dibertsiorako une

“Beste talde gehienetan ez bezala, etapa luze bat suposatzen du partaidea izatea”

luzeak tarteko izanik.

Hasierako urteetan lehen irteerek emandako esperientzia positiboak jasoz, lagunartean berdintasun eta elkarrekiko errespetuan oinarritutako taldearen indarrak jabetzean, inguruetako paisaiekin gozatu eta berau mantentzen ikastea, momentu gozoak (eta gutxi batzuetan mingotsak) bizi izan ditugu taldekide izandako guztiok.

Gaur egun, Orkatz Skaut taldeko kide ohi ugari ikus dezakegu herriko beste hainbat taldetan lanean, baina urteurren berezi honetarako 500 pertsona elkartzeak ongi erakutsiko du talde honek eman diena. Urte askotarako irabazi duten adiskidetasun samurrez, oraindik edozein unetan laguntzeko prest azaltzen zaizkigu, hau, gaureguno taldearen egoera, agian, aurreko urteetan baino nekezagoa izatean, bereziki esker-tekoea dena.

Horregatik, hilabete honetan urte hauen buruan emandako guztia biltzen saiatuko gara, oraindik luzeagoa izan nahi duen liburu sendoari jarraipena eman diezaiogun.

Amaia Alberdi Orkatz Skaut taldekidea da.

BAZAR
TOKI ON

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

Erdiko Kale, 7
Tel.: 79 91 64 • ARRASATE

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tel.: 79 91 84
ARETXABAETA



astea bi hitzetan

■ **Musakolako Kiroldegia txostenen zain**

Astelehenean AUKEAko junta bildu zen Musakolako kiroldegiaz berba egiteko, baina batzarrean ez zen kiroldegia istearen inguruko erabakirik hartu.

Udalaren eskariz Sika enpresa kiroldegiaren egoera aztertzen hasi denez, txosten hori jaso bitartean itzarrotea pentsatu zen aipatutako bileran. Kiroldegiaren egoeraren berri emango duen txosten tekniko hila-bete barru gertu izatea espero da.

Bestalde, azkenaldian emandako aurrerapausoak zeintzuk izan diren ere jakinarazi zen. Horri dagokionez, arriskuak saihesteko udalaren brigada kiroldegian izan dela, eta Udaleko Hirigintza Sailera oraindik

heldu ez den arren, Diputazioak txosten tekniko bida- li duela esan zen.

Apirilean aurrerapauso- rik ematen ez bazen, kirol- degia isteko erabakia har- tuko zuela adierazi zuen AUKEAk martxoko juntak.

■ **Egun batez txirringularitza nagusi**

Joan den ostiralean Euska- diko Itzuliaren gune izan zen Arrasate. Eguerdian goize- ko etapa bukatu zen Arra- saten, eta arratsaldean erlo- juz kontrakoa abiatu zen. Sari banaketa ere herrian egin zen, txapeldun Zulle izanik.

■ **Janaria eta dantza galiziarrak**

Ostiraletik igandera arte gali- ziarren jaia ospatu zen Arra- saten. Dantza galiziarrek

nagusi izan ziren jaiean, ber- tako janaria dastatzeko auke- ra ere izan zen, esaterako, Orensetik ekarritako 1.000 kilo olagarro prestatu eta ribeiro ardoa. Ekintza gehie- nak San Andres auzoan egin ziren, eta herriko jendeaz gain kanpokoak ere etorri ziren.

■ **Kontzertu lirikoak antzokian**

Hemeretzi urteko Naroa Enekotegi mezzo soprano- arren emanaldia izan zen asteazkenean Amaia antzo- kian. Naroarekin batera hogeitasei urteko Aintzane Basterretxea pianojoleak parte hartu zuen. Lekeition bizi arren, Naroa Eskoria- tzan jaio zenez jende ugari hurbildu zen bi gazteek eskainitako kontzertu lirikoak entzuteko.



Komunikabideak eta komunikazioaren berri gazteok dugun iritzia jakiteko, herriko hogeit alderi galdetegi bat bidali genien, hainbat talderen erantzuna jasoa dugularik jadanik. (...)

Besterik gabe eta iritzi gehiagoren zain, Txalaparta taldeak, HB gazteak, Sharp, Jarrai, AGAko eta Jarrai irakaskuntzak bidalitako iritzia honako hauek dira. (...)

Batez ere kalte egiterako orduan, gehienak bat daude esaterakoan gaur egungo komunikabide nagusiek guztiz partzialak eta manipulatuak direla, estatuaren tresna bilakatzen direla, batez ere Euskal Herriko gatazka politikoan. Komunikabideak interes politiko eta ekonomiko zehatz batzuen inguruan mugitzen dira.

Herri komunikabideetan ordea, nahiz eta objetiboa izatea lan erraza ez izan, beraien jarrera ez omen da komunikabide nagusiena bezain lotsagarria, hala ere, hobetu behar diren gauzak daudela diote”.

Hitza eta Ekintza
aldizkaria, lehen alea



ARKO-ren BATZAR OROKORRA

Asteartean ARKOren batzar orokorra egin zen. Urte osoko iharduera- tik bost puntu azpimarratu ziren: Arrasate Press-eko aldaketak, telebistaren lanak izandako oihartzuna, publizitatean gertatu den helburuen hobetzea, autofinantzaketan eman- dako aurrerapauso eta egoitza berriaren kontua.

• **ARTEA** •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK

Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tel.: 77 10 95
ARRASATE



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 79 13 05 • Faxes: 79 13 84



Arrasate Pasealekua 4,
Tel.: 79 14 90
ARRASATE

Jaiotzak

- Julen Larrañaga Garcia. Martxoaren 25ean.
- Ane Zuazubiskar Iñarra. 26an.
- Eneko Canelo Muguruza. 27an.
- Maialen Gay Saenz Azkurgana. 30ean.
- Tamara Iglesias N'kulu Bulaite. 30ean.
- Daniel Berrocal Perez. Apirilaren 1ean.

Ezkontzak

- Eneko Agirre Bengoa eta Ane Belen San Martin Azofra. Zibilez. Martxoaren 8an.
- Juan Miguel Larrañaga Zabalala eta Rosa Ane Guinea Uriarte. Zibilez. Apirilaren 11n.

Hildakoak


- Pablo Arizabaleta Zabaleta. Martxoaren 20an. 89 urte.
- Julio Azkargorta Kortabarria. 23an. 84 urte.
- Gervasio Iriarte Martinez. 22an. 79 urte.
- Juan Narvaez Moreno. 23an. 77 urte.
- Petra Zarraoa Zarraoa. 25ean. 89 urte.
- Jose Luis Urizar Arkarazo. 27an. 67 urte.
- Jose Mari Ansoategi Iregi. 30ean. 83 urte.
- Vicente Barrutiabengoa Gaztañaga. 31n. 86 urte.
- Brigida Beloki Zilaurren. 31n. 88 urte.
- Jesusa Gojenuri Egiluz. 31n. 90 urte.
- Josefa Ursula Mujika Furundarena. Apirilaren 3an. 90 urte.

Bat egin dute Arrasateko eta Aretxabaletako Institutuok

Bat egin berri dute Arrasateko eta Aretxabaletako Institutuok, eta era horretan, zentro bakarra osatuko dute baina bi egoitzekin. Seguruen Arrasate-Aretxabaletako Bigarren Hezkuntzako Institutoa izenarekin bataiatuko dute zentro berria.

Elkarketaren ondorioz, Arrasateko Institutoak batxilergoa eskainiko du, eta Aretxabaletakoak heziketa zikloak. Beraz 16 urterekin Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatutakoan, ikasleak bi aukera izango ditu: Arrasaten batxilergoa egin (hiru adar egongo dira aukeran: natur eta osasun zientziak, gizarte zientziak eta teknologikoak) edo Aretxabaletan erdi mailako heziketa zikloa ikasi. Aretxabaletakoak, gainera, 18 urtetik gorakoendako goi mailako heziketa zikloa, eta langabetuendako edo langileen birziklapenera zuzendutako formakuntza ez-arautua ere eskainiko ditu. Heziketa zikloen barruan aukera desberdinak egongo dira, baina beti ere bailarako enpresa eta zerbitzuen beharrei erantzunez.

Bategitearen helburu nagusienak bailarako eskaintza publikoa sendotu, kalitatezko hezkuntza eman eta hezkuntza publikoa berran-



Eskaintza publikoa sendotzea izan da elkarketaren helburua.

tolatzea izan dira. Bi institutuotako zuzendarien esanetan, batxilergoa indartuta geratuko da eta eskaintza ere handiagoa izango da ikasleek nahi duten bidea aukera dezaten. Era berean, bi ikastetxetako ekipamendu sarea eta

lan taldea ere elkartu egingo direnez, errekurtsuak hobeto antolatuta geratuko direla uste dute.

Elkarketa, legez datorren ikasturtean sartuko denez indarrean, batzorde bat eratu da zentro berria antolatzeko.



Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 79 11 72

ARRASATE
HOTELA



Biteri, 1 Tel.: 79 14 16
ARRASATE

Monte
taberna

Maalako arrabala, 11
Tel.: 79 20 56

IBARRA
Garajea S.L.



EBRO
NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua



Joan den ostiralean egin zen bake epaitegiaren aurkako azken erasoa.

la lau milioiko galerak utzi dituzte bake epaitegiaren aurkako erasoek

Bake epaitegiaren aurka apirillean egindako bi erasoek ia lau milioiko galerak utzi dituzte. Lehen erasoa hilaren 3an egin zen beheko solairua kiskalita geratuz, eta ondorioz, 2.385.000 pezetako kalteak eragin ziren. Bigarrena joan den ostiralean izan zen, eta azken horrek 1.500.000 pezetako galerak ekarri ditu epaitegian. Horrez gain, 200.000 pezeta kosta izan da Txatxi-

lipurdiren eta AEDren bulegoetan kristalak konpontzea.

Epaitegiak erabiltzen duen eraikuntza konpontzeko asmoa du Udalak, eta aseguruaren kontsorzioarekin ere harremanetan jarri da dirulaguntza jasotzeko. Eraikina konpondu arte, bake epaitegia Arrasate Pasealekuan Udalak dituen bulegoetan kokatuko da.

Aurten epaitegiaren aurka

egin den hirugarren erasoa izan zen joan den ostiralekoa. Azken honetan, bi kilo kloratitaz osatutako lehergaiak eztanda egin zuen Pablo Uranga kalean. Eztandak kalteak eragin zituen epaitegian, baina inguruko etxebizitza batzuetako leihoak eta auto batzuetako kristalak ere apurtu ziren. Lehergaia osatzen zuen materialagatik, erasoa ETAK egin duela uste du Ertzaintzak.

INEMi dirulaguntza eskatu

Udalak hainbat lanpostu betetzeko dirulaguntza eskatu dio INEM erakundeari. Laguntza mota hori urtero eskatzen da, eta enplegu erakundeak erabakitzen du zein lanpostutako laguntza eman.

Udalak sei langile kontratatzeko laguntza eskatu du: Uharkaperi buruz txosten sakon bat egiteko lizentziatua, herriko trafikoa aztertzeko teknikoa, galdaragilea barandatuak konpontzeko, errepideak margotzeko ofiziala, saneamendu sarea informatizatze delinentea, basoak garbitzeko hiru peoi eta ikerketa sozio ekonomikoa egiteko teknikoa.

Goizargi hasi da lanean

Apirilaren lehen astean hasi zen Goizargi enpresa etxez-etekeko laguntza zerbitzua eskaintzen. Guztira 38 langile ari dira Goizargin lanean, eta horietatik 15 aurrez Bazainen ibilitakoak dira.

OPEL

OPEL GAMA BERRIA.

*Apirilaren 18 eta 19an OLA TAILERRETAN ateak zabalik izango dituzu.
Zatoz OPEL gama berria ezagutzera.*

OPEL
SINTRA



OPEL
VECTRA
CARAVAN



TAKOLO AUTOAK

Araba etorbidea, 3 (ESKATU pabilioia)
ARRASATE • Tel.: 79 05 86

TALLERES OLA

Olabarrena auzoa, z/g • BERGARA
Tel.: 76 33 44 / 45 / 46

Lehenengo pausoak eman dira Uribarriko jubilatuetako etxe berria egiteko

Udalak Kudea enpresari adjudikatu dio Uribarriko zaharren egoitza berriaren proiektua idaztea. Egoitza zelakoa izango den zehaztuko duen proiektuagatik 860.000 pezeta jasoko ditu Kudeak, eta hilabete eta erdi barru bukatuta egongo dela uste da.

Uribarriko jubilatuetako etxe berria Larrea plazan kokatuko da, Udalak bertan erosi ditu eta horretarako lokalak. Hasiera batetan, lokal gehiago erosi eta ekintza desberdinak egiteko gizarte zentroa egokituko zela esan bazen



Larrea plazan egingo da Uribarriko jubilatuetako egoitza berria.

ere, azkenean zaharren egoitza eta auzoko alkatetza egi-

teko tokia erosi da bakarrik. Guztira 300 metro karra-

tu izango ditu egoitza berriak, beraz, toki aldetik lehengoaren antzerakoa izango da. Barrutik ere lehen bezala sukaldea, bilera gela, liburutegia edo egongelak izango ditu baina berria izanik askoz erosoagoa izango da.

Uribarriko jubilatuetak aspaldiko urteetan ibili dira egoitza berria eskatzen, oraingo baldintza txarretan dago eta. Gaur egun 700 bazkide-tik gora ditu Uribarriko jubilatuetak, eta orain erabiltzen duten lokalean 82az geroztik daude.

Hies Ekimenaren oharra, Remar-en diru bilteta dela eta

Hies-aren inguruan lan egiten dutela esanez, Remar taldea dirua biltzen ibili izan da azkenaldian Arrasaten. Hies Ekimenak, berriz, benetan dirua Hies-erako ez dela uste du, eta talde horri dirurik ez emateko

deia luzatu du. Remar taldekoak batez ere ostiraletan, azoka egunean, ateratzen dira dirua eskatzera.

Udalak bestalde, kalean dirua biltzeko baimena ukatu dio Remar-i.

Lopez de Arriortua Arrasatera Eskola Politeknikoak gonbidatuta

Eskola Politeknikoak gonbidatuta, gaur arratsaldean (ostiraletan) Lopez de Arriortua zen etortzeko Arrasatera.

"Super Lopez"ek, 96ko promozioko injineruei eman behar zaizkien diplomen bana-

ketan parte hartu eta hitzaldia eman behar zuen gaia honakoa izanik: "enpresariak, iniziati-badunak: aukera beharrezko bat, oportunitate bikainak dituen". Arratsaldeko 5.30etan zen hastekoa ekitaldia.



**Parques
y Jardines**

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

**ARGÍ
PLASTIC**

*Tailerra eta bulegoa: Zigorrola, 1-8 pabiloia
Tel.: 77 11 30 • ARRASATE*

- PVC eta aluminioan egindako leihoak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean.
- Zerbitzu profesionalena.

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik!**

DEMOS

MUSIKA SAIOAK

gm!
gaztemaniak!

Apirilak 11, ostirala: **LUIS CAMINO** perkutsiojolea.

Apirilak 17, osteguna: **LOYOLA GARMENDIA** Golden Apple Quartet.

Apirilak 25, ostirala: **PABLO MORENO** gitarrajolea.

**MONTERRON hitzaldi aretoan
arratsaldeko 7etan
SARRERA DOAN**



Gipuzkoako
Foru Aldundia



ARRASATEKO UDALA
Gazte Saila ■



ALBOKA ETA ZAHATOA Arrasateko
IRABAZI Hitza eta Ekintza
 komunikazio taldeak ateratako errifen sari bat

Junkal Perezen koadrilari tokatu zaio. Zahato bat eta alboka bat eskuratu dute baina alboka Junkal-en ahizpari emango diote berak daki jotzen eta. Zahatoa, berriz, guztien-dako.

OROITZAPEN LATZAK UMOREZ!

Orain dela 33 urte Zerkaosteta kalean etxea erre zitzaien 50 lagunek bazkaria egin zuten joan den zapatuan. Bazkaria bakarrrik ez, dantzaldia ere izan zuten eta ikusten denez gertakizun garratz hura ahaztu ez, baina umorez gainditu dute.



EZIN SOLDADUTZA AHAZTU

61eko kintoek, hau da, urte horretan soldadutzara joan zirenek, joan den zapatua aukeratu zuten egunpasa egiteko. Zelan aldatzen diren gauzak! Batzuk soldadutza garaia gogoratu guran, eta beste batzuk horri buruz entzuterik gura ez.

“PAL”
 burdindegia,
 brikolage
 eta tresneria
 Uribarri etorbidea, 3
 Tel.: 79 31 99 ARRASATE

**ZUBIZARRETA
 TAILERRAK**
 Gipuzkoa Etorbidea, 22
 ARRASATE
 Tel.: 79 15 65

URRATS
 AHOLKULARITZA
 CARIBAI, 3
 Tel.: 79 87 74
 ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.
 Bertan egindako:
 • Sukalde altzariak
 • Armairu enpotratuak
 • Trastelekurako armairuak
Fabrikaren erakusketa
 Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
 Tel/Faxa: 79 01 82

LA MONDA-KOAK ERE ARRASATERA

Nor ez zen ostiralean Arrasatera etorri? Horixe izango litzateke milioiaren galdera. Ikuskizuna handia zela eta, barrea eragiten saiatzen diren kazetariak ere herrian izan ziren. Lortuko ete zuten helburua?



MEGA GRUA ZERBITZUA

Grua tel.: 989 34 98 29
Renault Asisten.: 900 365 000
24 orduko zerbitzua 365 egunetan



IZENAK

ARKOK

zuzendaritza batzordea berri du, eta kide berriak Maria Lazkano, Jose Mari Mujika, Iñaki Olaizola eta Aitor Oroben-goa dira.

Tito Perczaz Imaz,

da Arrasateko Udaleko arkitekto berria.

Titok 32 urte ditu, Errenterriako da eta arkitekturan lizentziatua.



MEZA ARRASATEN...

45ko kintoak dira argazkikoak, beraz, urte horretan soldadutzara joandakoak. Meza herrian entzun baina lagun hauek bazkaltzeko nahiago izan zuten Aretxabaletara joan. Zergatik ete da? Ez zuten soldadutza Aretxabaletan egingo!



ZENBAKIA

79 48 42

da Arrasateko Udaletxeko ur zerbitzuaren benetako telefonoa. Gida argitaratzerakoan oker eman genuen telefono zenbaki hori, beraz hor zuzenketa. Ur zerbitzuan arazoren bat izanez gero, badakizue zein zenbakira deitu.



PEÑAKOBA

Zarugalde, 46
Tel./Faxa: 79 29 93
ARRASATE

Lizaur arkitektoa, 7
Tel.: 78 05 60
OÑATI



ISABE

Ileapaindegi mixtoa

Goizez: 9-12

Arratsaldez: 2.30-7.30

Larunbatetan: 8.30-1.30

Makatzena, 10 beheka • ARRASATE

Tel.: 79 69 15

HIRU HAUNDIXEK

3

LEA ETA APERRI
MEMORIALA

EGUNETAN

Maiatzak 1, 2 eta 3.

Izenemate epea:
apirilaren 25a arte.

Tfnoa: 77 12 28 (Edo AEDn)

Prezioa: 3.700 pta.

Aizkorri, Anboto eta Gorbea igoko dira eta lo Gatzagan eta Urkiolan. Arropak, sakuak eta bestelako ekipaia antolakuntzak garraiatuko ditu lo-lekutik lo-lekura.



ikastaro gazteak

• Karibeko dantzak

(salsa, merenge, bachata)
Sakontze mailako ikastaroa

Noiz: maiatzaren 21etik ekainaren 18ra

Astelehen eta asteazkenetan

Ordutegia: 7etatik 9ak arte

Non: Musakolako Saloian

Matrikula: 4.000 pta (2.500 ikasle ta langabetuentzat).



Izen emateak: Gazte Bulegoan 77 00 65



ARRASATEKO UDALA

Gazte Saila ■

Bizirik Eguna Arrasaten

Drogen debekuari stop! Eman bidea prebentzioari

"Debekua gaudituz ekin prebentzioari" leloarekin jai berezia ospatuko da bihar herrian Askagintzak antolatuta.

Askagintza droga-menpekotasunen inguruan lan egiten duen elkarte da, eta *Bizirik Eguna*ren bidez zera aldarrikatu nahi dute: drogen debekuaren bideak porrot egin duela eta prebentzioaren aldeko lana egin behar dela.

Aurten, zortzigarren urtez ospatuko da *Bizirik Eguna*, eta oraingo honetan antolatzaileek Arrasate aukeratu dute jai hori egiteko. Askagintzako kideek aitortzen duten moduan, Euskal Herrian gutxi ezagutzen da *Bizirik Eguna*, *Kilometroak* eta horrelakoen oihartzunik ez du. Hala ere, egun berezi hau ere apurka-apurka indarra hartuz doa, eta aurten arrasatearrak izango dute egun horren helburuak zeintzuk diren ezagutzeko aukera. Jakina, ondo pasatzeko modurik ere izango da arratsaldetik gauera arte izango diren ekintzen bidez. Egunari bukaera noiz eman, berriz, norberak erabaki dezala.

DROGA MENPEKOTASUNIK GABE

Burubelarri lanean ibili dira



Arrasateko Askagintza taldea bost kidek osatzen dute, eta astero biltzen dira.

aste honetan Arrasateko Askagintzako kideak. Jaia herrian izanik, gainera etorri zaie antolaketa lan guztia, baina jakin dute tartetxo bat aurkitzen elkartek egiten duen lanaren berri emateko.

Askagintzakoei ez zaie "aurkako" hitza gustatzen, eta elkartearen helburuak zeintzuk diren galdetzerakoan, Deunoro Oterok dio Askagintza droga-menpekotasunen inguruan lan egiten duen elkartea dela. Definizio hori era honetan zehatu du Askagintzako kideak: "Ez dugu ezer drogen aurka. Askagintzaren ustez droga ez da arazoa. Drogak egon dira, daude eta egongo dira, eta beraz, ez du zentzurik drogen kontsumoaren aurka joateak. Drogekin elkarbizitzen ikasi behar dugu, baina menpekotasunean erori barik".

Pertsona drogen menpe egoteak kezkatzen ditu Askagintzakoak, baina baita gizar-teak drogen aurrean duen jarre-
rak ere. "Gaur egun gizar-teak objektibitate gutxiarekin jokatzeko du, eta errealismoari baino moralismoari ematen zaio garrantzia. Droga batzuen kontsumoa normalizat jotzen da, esaterako, helduek kontsumitzen duten alkoholak ez du alarrik pizten. Aldiz, gaizki ikusita daude gazteek kontsumitzen dituzten droga "ilegalak". Zientifikoki alkohola ere droga bat da, gure jokaera alda dezake eta. Hala ere, arrazoi hori baino indartsuagoa den irudi soziala dago, eta horrela, droga da ilegalt-

zat jotzen dena, gazteek kontsumitzen dutena edo delikuentziarekin lotuta dagoena" dio Oterok.

Askagintzakoek ustez, droga batzuren aurka egon eta horien kontsumoa debekatzea ez da hartu beharreko bidea. Arrasateko kideek ere argi eta garbi ikusten dute debekuak porrot egin duela, baina hala ere, garbi utzi nahi dute drogen legalizazioaren alde egoteak zer esanahi duen. "Ez dugu merkatu librea aldarrikatzen, ez da helburua jendea drogak kontsumitzera bultzatzea. Drogak debekatzearen aurka gaude, baina arau batzuk egon behar dira drogen produkzioa, salmenta eta kontsumoa arautzeko".


Deunoro Oterok aitortzen duenez, aurrez ezin da jakin drogen legalizazioak zer ekar dezakeen, "edozein aldaketaren aurrean kezka eta galderek sortzen dira, baina arriskuei aurre egin behar zaie, horiek erakutsiko digute eta zein bide hartu".

PREBENTZIOA BULTZATU

Prebentzioari adarretik heltzea aldarrikatuko du Askagintzak biharko egunean, eta horretan gizarte guztiak parte hartu behar ei du.

Prebentzioa nola bultzatu? Bada, drogen inguruko hitzaldiak, mahainguruak edo txostenak eginez, eta bestetik, hezitu edo formatu balore batzuk sustatuz. Deunororen iritziz, pertsona erabakiak

"Drogak debekatzearen aurka gaude, baina arau batzuk egon behar dira drogen produkzioa, salmenta eta kontsumoa arautzeko"



Apirilak 19, Bizirik Egunaren egitaraua

MONTERRON INGURUAN

- **Arratsaldeko 4etan** Takolo Pirrux eta Porrotx pailazoak eta gaztelu puzgarriak
- **5etan** Goloka antzerki taldea, malabarak, txokolatada eta haurrendako tailerrak (maskarak, globoak...)
- **6.30etan** Kointura musika taldea
- **7.30etan** Kalejira: zangoluzeak, trikitilariak...
- **8.30etan** Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga eta Igor Elortza
- **10.30etan** Kontzertua: Ke Rule eta Bat Bitten.

HERRIKO PLAZAN

- **Gaueko 9.30etan** Ekekei antzerki taldearen emanaldia: "Fumantxu Gernikako Arbolaren gerizpean"

(Monterron inguruan txoznak jarriko direnez, Otorala kalea itxi egingo da)

hartzeko aske izan behar du jarrera arduratsu batetik. Horrez gain, drogen menpekotasunari alternatibak eskaini behar zaizkiola uste du. "Kultura berri bat sortu behar da drogekin bizi izateko eta hiru zutabetan oinarrituko litzateke: tratamendu bideak eta prebentzio ekintzak bultzatu behar dira, eta baita marko juridikoa aldatu ere. Hau da, narkotrafikoaren aurkako legedia egin behar da eta drogen erregularizazioa hasi". Askagintzakoak droga guztiak apurka-apurka arautzearen alde daude, eta hasteko cannabis-a (landare horretatik lortzen da haxixa) legeztatzea proposatzen dute. Can-

nabis-a gizartean eta gazteen artean oso onartuta egonik, Deunoro Oterok ez du ulertzen zergatik ez den kontsumohori legeztatzen. "Zergatik alkohola bai, eta haxixa ez? Zergatik jokatzen dugu moral bikoitzarekin?". Galderak airean daude.

ASKAGINTZA ASPALDITIK LANEAN

Elkarte moduan orain dela hamar urte eratu zen Askagintza, baina taldeko hainbat partaide lehenago ere drogen inguruan lanean ibili izan da. Arrasateko taldea, berriaz, orain dela bost urte inguru eratu zen, eta gaur egun bost lagu-

nek osatzen dute. Arrasate Pasealekuan, Arrasate Irratiaren alboan, dute bulegoa Askagintzakoek eta astean behin bertara joaten dira bilera egiteko.

Horrelako talde batean parte hartzeko aditua izan behar dela pentsa badaiteke ere, Askagintzakoek garbi utzi nahi dute ez dela beharrezkoa espezialista izatea. Deunorok dioten bezala gauza bat tratamenduen gaia da eta horretaz adituak arduratzen dira, baina droga-menpekotasunen inguruan edonork izan dezake ardurara eta horretarako ez da beharrezkoa aditua izatea. ■

Maria Agirre

"Gaur egun gizarteak objetibitate gutxirekin jokatzen du, eta errealismoari baino moralismoari ematen zaio garrantzia. Alkoholak ez du alarma pizten, baina gaizki ikusita daude gazteek kontsumitzen dituzten drogak"

AKE Squash taldeko kidea

JUAN ANTONIO VARILLA

"AKE taldekook squash-a indartu nahi dugu herrian"

— Noiz eta nola sortu da AKE taldea?

— Duela bi urte lagun batzuk elkartu eta Squash-a bultzatzeko asmoz AKE taldea sortu genuen. Gaur egun 18 lagun gaude eta horietatik zazpi federatuta.

— Urtean zehar zer antolatzen duzue?

— San Juanetan Euskal Ligako torneo bat antolatzen dugu. Horrez gain, Udaberriko Torneoa otsailetik maiztara artekoa eta Gabonetako txapelketa.

— Gazteen artean harrobia badago?


— Hori falta da. Taldea sortu zenetik berdinok galtza. Dena dela, gustatuko litzaziguke kirol honek gazteen artean oiartzun gehiago balu, horrela harrobi sendo bat eduki ahal izango genuke eta.

— Ze ezaugarri behar dira squashean ondo jokatzekeo?

— Forma fisiko ona eta teknika handia. Fisikoki ez gaude txarto baina teknika aldetik asko ikasi behar dugu. Gainera faltan botatzen dugu teknika erakusteko irakaskerle bat. Batzutan Asier Linazisoro bergarra etortzen da teknika klaseak ematera. Asier Euskadiko txapelketan bigarren geratu zen eta Gipuzkoako txapelketa birritan irabazi du.

— Azpiegitura ona dago Arrasaten?

— Kantxa onak daude. Ezin gara kexatu.




SASKIBALOIA Zapatuan denok Iturripera



Urbina Maltzagak jeitsierako play offa izango du helburu hemendik aurrera. Lehen faseko azken partidua Meroil taldearen kontra jokatu zuen eta arrasatearrek 109 eta 84 galdu zuten. Fase hori azken aurreko postuan bukatu du Urbina Maltzagak 32 puntu-rekin, 6 neurketa irabazi eta 20 galdu ondoren. Datorren zapatuan jeitsiera faseko lehen play offa hasiko da. German Mongeren taldearen arerioa Manresa izango da. Kanporaketa hiru partidutan erabakiko da. Lehen neurketa zapatuan Iturripen eta beste biak Manresako kantxan ondorengo asteburutan. Iturripeko neurketa arrasaldeko 7etan hasiko da. Urbina Maltzagak lehen erronka horretan ezin du kale egin, eta hori horrela izateko jarraitzaileen babesa behar dute jokalariek. Saskibaloia taldeko ordezkariak Iturripe goraino betetzeko asmoz ez dute sarrera kobratuko. Urbina Maltzagak lehen erronka irabazten badu, falta diren bi neurketetan garaipen bakkorra lortuz nahikoa izango dute aurrera egiteko.

FUTBOLA Azken txanpa talde bientzat



Mondrako emakumeek denboraldiko azken neurketa jokatu dute Iruñako San Juan taldearen kontra. Arrasatearrek ez dute ezer jokoan, beraz, tramite hutsa izango da partidua. Hala ere, jokatu egin behar eta horrela izanda, puntuekin etortzea primeran. Norgehiagoka domekan jokatu da eguerdiko 12etan.

Preferente mailako Mondrari zazpi neurketa falta zaizkio denboraldia bukatzeko: Unibertsitatea, Bergara, Ordizia, Uda, Orioko, Zarautz eta Roteta izango ditu aurkari ondorengo astetan. Datorren zapatuan Unibertsitatea taldearen kontra neurtuko ditu indarrak arrasaldeko 15.45etan Herrean. Donostiako taldea sailkapeneko liderra da. Gaur arte 19 neurketa irabazi ditu, 7 berdindu eta 5 galdu. Lehen bueltan Mondrak 1 eta 2 galdu zuen talde horren aurrean. Datu hori ez da zertan erabakiorra izan behar, izan ere neurketa jokatu zenetik ihar-dunaldi asko igaro da eta talde bietan aldaketak gertatu dira.

ATLETISMOA Urrezko bi domina



Arrasate Kirolak taldeko partaide gazteek kadete mailako Gipuzkoako txapelketan hartu zuten parte asteburuan Anoetan. Arrasatearrek emaitza ezin hobekak lortu zituzten. Unai Sarabiak 100 metrotan 11" 38 denborarekin urrezko domina eskuratu zuen; Oskar Gavilane diskido jaurtiketan 33, 54 metrorekin bezala. Zilarrezko beste bi domina: Jonatan Perezek pertika jauzian 3 metrokoa egin ondoren eta Juradok, Sarabiak, Perezek eta Gavilane 4X400 errelebo frogan. Brontzezko dominak Alazne Ruiz de Munainek 3.000 metrotan eta Maitane Arizmendiarririk 100 metro hesitan. Datorren asteburuan taldeen arteko Gipuzkoako Txapelketa izango dute atletak Anoetan. Senior, kadete eta jubencil mailako probak jokatu dira.

Deba Arroa txapelketaren finalak

Deba arroa txapelketa azkenetara heldu da. Datorren domekan goizeko 11etan hasita kadete, jubenil eta senior mailakoen finalak jokatu dira Iturripen. Aurten txapelketak 50 urte bete dituzenez, ospakizun berezia antolatu da finalerako. Neurketak hasi baino lehen, pilotari guztiek desfilea egingo dute txistularien laguntzaz eta gero finalak jokatu dira. Kadetetan Bergarako eta Aretxabaletako pilotariak sailkatu dira. Jubeniletan azken partidua Elgetako Oskarrik eta Sorluzek jokatu dute. Seniorretan Bergarako eta Oskarbi-ko pilotariak. Neurketa horiek

jokatuta sari banaketa egingo da Iturripen, eta bertan hainbat arrasatear omenduko dituzte, Deba Arroa txapelketa sortu zenetik gaur arte finalera heldu diren Arrasateko bikoteek. Era berean Josean Tolosa pilotari ohiak ere beste omenaldi bat jasoko du. Josean Arrasatera etorri zen ikastera eta herriko koloreak defenditu zituen. Bi omenaldi horiez gain, pilotari guztiek garaikur bana jasoko dute eta parte hartu duten herri guztietako ordezkariak Gipuzkoako pilota Federazioak plaka bana banatuko die. Ekintzak bukatuta bazkaria izango dute Gaurtxori jatetxean.

Deba Arroa Txapelketaren finalistak eta omenduak

Azken 50 urte hauetan Deba Arroa txapelketara heldu diren arrasatear pilotari hauek omenaldia jasoko dute:

ALEBINAK

- 1988** Osinaga - Errasti
1990 Rubia - Etxebarria

INFANTILAK

- 1975** Urria - Isturiz
1978 Arrizabalaga - Korta
1979 Juantxo - Korta
1987 Korta - Markos
1989 Gonzalez - Zuazubiskar

JUBENILAK

- 1962** Arroiabe - Barandiaran
1968 Zubillaga I - Trojaola
1972 Irigoien - Zubillaga II

SENIORRAK

- 1948** Garitano - Uribarren
1957 San Vicente - Jimenez
1961 Bengoa - Garai
1982 Lazpita - Zubillaga I

Karatekak txapelketa batetik bestera

Saioa karate taldeko neska-mutilek ez dute atsedetik izan hilea hasi zenetik. Lehen erronka infantil eta jubenil mailako Gipuzkoako txapelketa izan zen. Arrasateko infantilek katatan hartu zuten parte. Iñaki Muñoz entrenatzaileak 18 karateka eraman zituen eta horietatik bi, dominarekin itzuli ziren. Iban Galanek lehen postua eskuratu zuen eta Laida Ramosek bigarrena emakumeetan. Jubenilek berriz, kumitean hartu zuten parte. 55 kilo azpiko pisuan Jorge Sanchez urrezko dominarekin etorri zen eta Iraultza Tena zilarrezkoarekin. Patricia Morales lehen tokia baina katatan. Txapelketa horretan ere proba teknikoak egon ziren. Lau karatekak osatuta taldeak sortzen dira eta pistaz pista ariketak egin behar izaten dituzte. Proba horretan ere Saioa



Saio karate taldeko karetekek badute pozik egoteko arrazoia.

taldekoak primeran. Iban Galanek, Aimar Garciak, Josu Gonzalez Ruiz de Samaniegok eta Aritz Belategik osatutako taldea bigarren geratu zen. Hirugarrenak beste arrasatear batzuk: Laida Ramos, Amaia Ormaetxea, Eneko Arana eta Mikel Gonzalez.

Bigarren helburua Euskadiko txapelketa izan zuten. Infantiletan Iban Galan katatan laugarren postuan sailkatu zen. Jubeniletan Patricia Morales bigarrena izan zen katatan. Gainera Patricia Estatuko txapelketara joateko aurreselektzioan sartu da. Proba tek-

nikoetan lehen aipatutako taldeek berrito bigarren eta hirugarren tokia lortu zuten.

Joan zen asteburuan Azkoitiko txapelketara Gipuzkoako bost talde onenak gonbidatu zituzten tartean Saioa. Hiru laguneko hamaika talde osatu eta hainbat ariketa egin ondoren arrasatearrek brontzezko domina lortu zuten. Taldeko partaideak Goizeder Caballero, Denis Soriano eta Joel Medrano.

Apirilaren 26an oster, taldeen arteko Gipuzkoako Txapelketa izango da Donostian. Saioa karate eskolak bi talde eramango ditu katatan eta kumitean parte hartzeko. Katatiko partaideak: Iñaki Muñoz, Erik Martin eta Luis Muñoz. Kumitean Iñaki Muñoz, Erik Martin, Jose Manuel Petite, Iker Zabarte eta Unai Valor.



Laugarren ihardunaldian sailkapeneko behe aldeko taldeak jaun eta jabe izan dira. Pronostiko guztiak hautsiz talde sendoak txiki utzi dituzte. Horren ondorioz erabat aldatu da sailkapena eta bigarren fasea bukatzeko hiru ihardunaldi falta direnean txapelketa inoiz baino irekiagoa dagoela esan daiteke. Hemendik aurrera zer gertatuko den batek daki!

Talde ahulen berpiztea

Laburrak

■ A ZELAKO IHARDUNALDIA!

Zapatuan eta domekan partidu erabakiorrak jokatu dira Zaldibarren. Itxuraz interesgarriak direnak aipatuko ditugu. Zapatuan 9etan Lorategi eta Diego Antonio izango dira lehian. Biek irabazi behar dute aurrera egin ahal izateko. Ordubatean Koka Juniors eta AC surcos. Kokarendako partidu erabakiorra izango da. 4etan Ojo Avisore eta Ke oxtias eta 5etan Txeyenex eta MSM ingenieria Integral izango dira aurrez aurre. Galzailleek hirugarren fasera sailkatzeko aukera guztiak galduko dituzte. Domekan 12etan Sortu Informatikaren etsaia Adelaida Aldibi izango da. Adelaida ezin da lokartu bestela arazoak izan ditzake. Ordubatean Los Innombrables eta Sokoakoak, galtzen duenak jai.

■ NOLA DAUDE MULTZOAK?

Bizi bizi eta fasea bukatzeko hiru ihardunaldi falta direla kontuan hartuta, oraindik ezer ez dagoela erabakita esan daiteke. Gauzak garbien B multzoan daude, lehen bosten artean erabakiko dira lau postuak: Naranja Mekanika, AC Surcos, Insert Coin, Orlando Piratas eta Koka Juniors. Gainontzean zalantza nagusi.

■ URIBE AUZOA TXAPELKETA

Viboras taldeari bi puntu kendu dizkio te ez zelako epaitzera aurkeztu. Kontuz horrelako zigorrek, azken sailkapenean eragin izan dezakete eta.

BAI-BAI
Umeak
Moda
Lurrindegia
Opariak
Bañiez Doktorea, 15
(San Andres) • ARRASATE
Tel.: 79 06 37

PUB HAIZEA
arrasate

● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

TTUKUN
Fotokopiak
Enkuademazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreprodukzioa
Offseta
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 79 46 62

IRATI TABERNA
Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE

Sili Sili
Martxa eta estilo
handiko erropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Aurrera Bolie	4	3	1	0	21	9	7
Fosforos	4	2	2	0	19	9	6
Sortu Informatika	4	2	1	1	16	16	5
Adelaida Aldibi	4	1	1	2	12	17	3
Pepelus	4	1	1	2	11	19	3
Txeyenex	4	1	1	2	19	16	3
MSM Ing Integ	4	1	1	2	16	24	3
Abinagraus	4	1	0	3	12	16	2

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Naranja Mek.	4	4	0	0	23	11	8
AC Surcos	4	3	0	1	22	14	6
Insert Coin	4	3	0	1	18	14	6
Orlando Piratas	4	2	1	1	20	10	5
Koka Juniors	4	2	1	1	16	13	5
Okoretegi	4	1	0	3	13	16	2
Totem	4	0	0	4	8	23	0
Arrogoi Taberna	4	0	0	4	8	27	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Irati STS	4	4	0	0	33	8	8
Me la Pela	4	3	0	1	20	10	6
Galartza Kont	4	2	0	2	14	9	4
Lorategi	4	2	0	2	20	22	4
Sokoakoak	4	1	1	2	19	24	3
Diego Antonio	4	1	1	2	7	22	3
Oñaniereng	4	1	0	3	10	23	2
Los Innombrables	4	1	0	3	16	21	2

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Nuevo Taberna	4	3	1	0	27	13	7
Cer Leintz	4	3	0	1	23	14	6
KK jaurlaritzari	4	2	2	0	20	15	6
Betrayer	4	2	0	2	16	18	4
Bedarreta Tab.	4	1	1	2	13	16	3
Ke Oxtias	4	1	0	3	14	14	2
Jotakabau	4	0	2	2	14	17	2
Ojo Avisore	4	0	2	2	14	32	2



Emaitzak

A taldea

Sortu Inform.2 - Aurrera Bolie 2
 Pepelus 8 - MSM Ing Integ 5
 Txeyenex 4 - Fosforos 4
 Adelaida Aldibi 3 - Abinagraus 4

B taldea

Naranja Mek. 6 - AC Surcos 2
 Insert Coin 7 - Arrogoi Taberna 2
 Okoretegi 1 - Orlando Piratas 5
 Totem 3 - Koka Juniors 6

D taldea

Irati STS 8 - Me la Pela 2
 Los Innomb. 7 - Diego Antonio 1
 Lorategi 4 - Sokoakoak 8
 Oñaniereng 0 - Galartza Konte 6

E taldea

Betrayer 8 - Bedarreta Taberna 6
 Ojo Avisore 3 - Nuevo Taberna 11
 Cervecera Leintz 3 - Ke Oxtias 8
 Jotakabau 3 - KK Jaurlaritzari 3

Hurrengo partiduak

5. ihardunaldia

Apirilak 19, larunbata

Zaldibar

8.50 Lorategi - Diego Antonio
 10.00 Okoretegi - Arrogoi Taberna
 11.00 Abinagraus - Aurrera Bolie
 12.00 Galartza Kont - Me la Pela
 13.00 Koka Juniors - AC Surcos
 14.00 Naranja Mekanika - Totem
 15.00 Betrayer - Jotakabau
 16.00 Ojo Avisore - Ke Oxtias
 17.00 Txeyenex - MSM Inge Integ
 18.00 Insert Coin - Orlando Piratas
 19.00 Cerve leintz - Nuevo Taberna

Apirilak 20, Igandea

Zaldibar

8.50 Irati STS - Oñaniereng
 10.00 KK jaurlaritzari - Bedarreta Taberna
 11.00 Pepelus - Fosforos
 12.00 Sortu Informatika - Adelaida Aldibi
 13.00 Lso Innombrables - Sokoakoak

Uribe auzoko txapelketa

Emaitzak

A taldea

Astoen Villa 15 - DZV 5
 Flujos Secos 3 - Balon Rojo 2
 Babajana 9 - Pajax Amst.0
 Jako al rey 1 - Amueb Zarautz 5
 Niva Vin 5 - Ford Publicop 2

B taldea

Blind 2 - Argi Plastic 5
 Elisabeth 4 - Gallina Koko 8
 Astonia 8 - Manch. Fumaited 5
 Munar Fool 17 - Sartuixofuerte 3
 Rotor De Bol 7 - Ale Alee 2

D taldea

Pier Nodoiuna 1 - Doble Cero 10
 Mendizabal 1 - Alai Gozokiak 3

Molakai 4 - Lso Invalidos 11

DKB 4 - Ainarexia 3
 AT Barbate 0 - Nuevo Taberna 9

E taldea

Lautherbrunn 2 - Borronck Roll 3
 Viboras 1 - Dribling 7
 Ganbelas 2 - Bortxitxak 3
 Auri 1 - La Mosca Gao 6
 Gerondis B. 4 - Ke Oxtias 7

F taldea

Leya 4 - Decima Victima 3
 666 1 - Lso Innombrables 8
 Hirei 3 - Ojo Avisore 3
 SGK 2 - no hay mus 9
 Sobredosis T.2 - Equs BTR 6

Hurrengo partiduak

3 ihardunaldia

Apirilak 19, Larunbata

Iturripe A

9.00 Sambuka Porr - DZK
 10.00 Leya - Innombrables
 11.00 Ganbelas - La Mosca Gao
 12.00 SGK - Equs BTR
 13.00 Mucho Morro - Argi Plastic
 14.00 The Pepe Wols - Borrock 'n Roll P
 15.00 Comando Alp. - 10 Victima
 16.00 Astoen Villa - Balon Rojo
 17.00 Blind - Gallina Koko
 18.00 Molokai - Ainarexia
 19.00 Auri - Ke Oxtias
 20.00 Munar Fool - Ale Alee

Iturripe B

13.00 Hirei - No hay mus
 14.00 Flujos Secos - Pajax Am.
 15.00 Elisabeth-Manchester Fu.
 16.00 Babajana S - Amueb Zarautz
 17.00 DKB - Nuevo taberna
 18.00 Lautherbrunn - Dribling
 19.00 Jako al rey - Ford Publicop
 20.00 666 - Ojo Avisore

Apirilak 20, Igandea

Iturripe A

9.00 Astonia - Sartuixok Fuerte
 10.00 Makai - Doble Cero
 11.00 Mendizabal - Los Invidos
 12.00 Viboras - Bortxitxak
 13.00 Pier N. - Alai Gozokiak

KONTXITA ARDANAZ (MOJA BOLIBIAN)

“Harreman taldeari ezker”

Kontxita Ardanaz lekai-
mea irundarra da, bai-
na Bolibian bizi da
orain dela 25 urtetik.

Erizain lana egiten du Kocha-
bamba hiritik 7 kilometrora
dagoen auzo marginal bate-
an. Duela gutxi bere jaiote-
rriara bueltatu zen egun batzuk
pasatzera eta 3. munduaren
aldeko Arrasateko Harreman
taldeari eskerrak ematera.
Harreman taldeak bildutako
35.000 dolarrei esker, Kont-
xita bizi den auzo margina-
lean 120 metro sakonerako
bi ur putzu eta ur sarea egin
dira. Kochabambatarrek 30
urte zeramatzaten horren
zain.

— Bolibian, non bizi zara?

— Bolibiako Altiplanoan
nago, Kochabamba izeneko
hiri batetik zazpi kilometrora

25.000 biztanleko auzo bate-
an. Bolibiako gainont-
zeko lekuak baino
beroagoa da, bailara
batean dago eta. Mea-
tegiatik eta Altiplano-
tik etorritako jen-
de asko bizi da, azken
urteotako lehortekak
lurra guztiz pobretuta
utzi duenez alde egin
behar izan dute eta.

— Ze lan burutzen duzue
han?

— Guk han ez dugu enti-
tate propiorik, beraz, hango
gotzaiak beharra dago-
en lekuetan lan egi-
tera gonbidatzen
gaitu. Alor des-
berdinetan egi-
ten dugu lan:
emakumearen
promozioan,

osasunean, hezkuntzan, 3. adi-
nekoen zainketan eta umee-
nean. Zazpi lekaime gara eta
bakoitzak gustokoen duen
alorrean formatu eta ondo-
ren lan egiteko aukera du.
Ni adibidez, erizain naiz.

— Nola bizi da hango
jendea?

— Oso pobrea da eta
lan egin arren, diru gutxi
irabazten du. Gainera, seme-
alaba askoko familiak
izaten dira eta zai-
la egiten
zaie

“Gure auzoa oso pobrea da eta bertako
biztanleek lan egin arren, diru gutxi
irabazten dute. Hango jende askok
tea eta ogia du eguneroko janari”



25.000 lagunek ura dute”

eguneroko ogia ateratzea. Hango jende askok tea eta ogia dute eguneroko janari.

— **Harreman taldeak lortutako diruarekin, zer proiektu garatu da?**

— Kochabamban gaudentetik ez dugu urik izan, 26 urte dira jadanik. Jendeak ura erosi egin behar izaten zuen eta oso pobreak denez, gastu handia ekartzen zien horrek. Behar larri hori ikusita, proiektu bat bidali genuen *Pueblos Hermanos* erakundera. Erakunde horrek Harremani eman zion proiektuaren berri eta Harremanek asko lagundu du proiektuaren gauzapenean. 35.000 dolar heldu ziren ur sarea egiteko eta Harremanen diru laguntza horri esker bi ur putzu egin ahal izan dira eta joan den urtetik ura dago etxe guztietan. Laguntza honen alde ona, Kochabambako jendea animatu egin dela da, sekula bete ez diren promesa

asko egin digute eta.

— **Hango biztanleek ur proiektuaren garapenean parte hartu zuten?**

— Bai, jakina, baina aurrez enpresa bat kontratatu behar izan zen putzuak egiteko. 120 metroko sakonerako zuloak egin behar izan ziren lurrian eta hori makinekin egin zen. Gero, auzoko azalera osoan zanjak zabaldu behar izan ziren ur hodiak sartzeko eta horretan, auzoko jendeak egin zuen lan injineru baten ardurapean. Obrak

amaitu zirenetik jendeak antolatuta jarraitzen du ur sarea zaintzeko. Jendearen arteko antolakuntza oso garrantzitsua da. Askok euren sustraiak galduta dituztenez, garrantzitsua da euren artean antolatzen.

— **Noiztik zegoen hango jendea ur sareraren zain?**

— Gu heldu baino lehen, orain dela 30 urtetik. Orain euren eta gure ametsa errealitate bihurtu da eta hori oso garrantzitsua da. Aurrera begira garatu daitezkeen beste proiektu batzutarako indarrak

eta esperantzak batu dituztelako.

— **Gobernu bolibiarrek nola ez du ezer egin orain arte?**

— Zoritxarrez, gobernu bolibiarri gutxi inporta zaizkio gune marginalak. Ez du ezer egiten. Hauteskundeetan kandidatura politiko berriak aurkezten direnean, gune marginalak hobetzeko hitz ematen dute, baina errealitatean ez dute ezer egiten. Bestalde, alkatetzara zerbaiten eske joan nahi baduzu, hain da handia igaro beharreko burokrazia, ez duela merezi. Kanpoko laguntza barik, ezin da inolako proiekturik aurrera eraman. Gobernuak obrak eta abar egiteko baimenak ematen ditu, baina dirurik ez. Horregatik, ur proiektuarekin, hango jendea oso pozik dago Arrasateko herriarekin eta eskerrak eman nahi dizkiete lagundu duten guztiei. ■

“**Bolibian, hauteskundeetan kandidatura politiko berriak aurkezten direnean, gune marginalak hobetzeko hitz ematen dute baina errealitatean ez dute ezer egiten**”



Montte
EKIPAMENDU INTEGRALA • BARNE DISEINUA

Pablo Uranga, 1
Tel.: 79 38 22 • Faxa: 79 36 78
ARRASATE

Poligono Industrial, 10
Tel.: 88 88 00 • Faxa: 88 88 07
BEASAIN

**TOLDOS
LECE** C/B

Eguzkiaren indarrari gogor egiten dion marka sendoa gara.

Kataide Poligonoa, 14
Musakola • ARRASATE
Tel.: 79 23 83
Faxa: 77 04 45

Laugarren galeriatik edo laburmetraia egitearen abentura

LEHEN ESZENA

Orain hiru hilabete, Bergaran

Aspaldi idatzi zuen Jon Anduezak "Laugarren galeriako bakardadetik" izenburuko ipuina. Bi pertsonaia zelda batean eta euren arteko harremanak, denboraren igarotzea eta harreman horren bilakatzea.

Aspalditik buruan, irudietara pasatzeko istorio egokia zela. Gidoi zinematografikoa besapean hartu eta Xabier Alberdi, Sato-rekin, elkartzen da Bergarako Usoa tabernan. Kafe usaina eta zigarroen kea. Ideia azalduta betiko zalantzak: gai izango ote gara? badugu mediorik?... Azkenean Satok argi esaten du: "gauzak, ekinez egiten dira". Ez dago dudarik. Beste protagonistak harrapatuko dituen trama abian ipini da.

BIGARREN ESZENA

Aste batzuk beranduago, Arrasateko Ospitale Zaharrean

Jonek, Unai Torresek, Satok, Pako Altubek eta Iñaki Arriola "Kiki"-k Ospitale zaharreko gela baten lehenengo frogak egiten dituzte. Ideia, laburmetraiaren zirriborro bat egitea. Hala ere, zerbait falta da. Gelak ez du zelda itxurarik.

Kopik, Jabilok eta Danelek badute esperientzia dekorazio lanetan. Zeldarena egi-na zegok! Ohol batzuk, pintura eta imaginazioa nahastu, c'est voilà, zeldarik ilunena ospitale zaharrean.

HIRUGARREN ESZENA

Beranduago, Zornotzan

Aitor Agorriak Satok faxez bidalitako gidoia jasotzen du. Faxe etxean gorde du "Euskal Zinemaren Museora" bidaltzeko asmoz. Laburmetrai bat egiteko gogo. Berak egiten du istyry-boarda, testua irudietara itzultzen du, plano bakoitzaren konposizioa komikien leihatiletan marraztuz.

Ordurako talde teknikoak gorpuztu da. Manu Izagirre kamara uzteko pasatzen da ospitale zaharretik eta azkenean operadore lanak egiten ditu. Aitor Agorriak Ima-

nol Egiarte elektrikari paregabea fitxatzen du. Aktoreak besterik ez dira falta.

LAUGARREN ESZENA

Orain hile bat, Gordexolan, Enkarterrietan

Kepa Gallegoren etxean telefonoaren txirrina entzuten da. Aspaldi irakurri zuen gidoi probisional, grabatzeko prest dago. Aktoreak falta. Protagonista izateko prest hago? Sosik ez, baina umore ona bai. Laburmetraia pertsonaia biren arteko harremanean oinarrituta dago. Interesgarria epe laburrean sentimendu espektru zabala igarotzen duen pertsonaia lantzea. Aurrera orduan. Baina nork egingo du bestea?

Kepak eta Jonek pertsona bera dute buruan: Aitor Aldabaldetrek. Telefonoa berriro ere. Beste pertsonaia nola interpretatu material barik, zer egingo du espazio itogarri eta hutsean? Ideia interesgarria. Aurrera ere. Entsaio batzuk egin. Karakterizazioa lotu. Grabatzen hasi.

BOSTGARREN ESZENA

Orain aste bat. Aita Menni Ospitale Psikiatrikoa

Hiru astebukaeratan grabatu da laburmetraia, egun batzutan 12 ordutik gora sartuz. Lan gogorra, baina ez gure protagonista

nistak psikiatrikoan ingresatzeko adina-koa. Azken grabaketa egingo dute Santa Agedan. Aurretik Legazpiko taberna batean eta Arrasate Musikaleko eskaileratan grabatu dituzte bi eszena eta denok harritu dituen aktorea errebelatu da, "Kiki Legazpian harritu gaitu. Bigarren mailako tabernariaren papera eszenaren zentroa bihurtu du "nire tabernan odolik ez!" bapateko esaldiarekin" komentatzen dute denek algarartearen.

Psikiatrikoan, arratsalde osoa igaro da toma ezberdinen artean. Bukatzerakoan dena jaso eta atsedena hartu. Orain Aitor Agorriak dioenez "2. fase" bat hasten da. Muntaiaren azken framearen ostean prozesuaren zati "pedagogikoa" hasiko da. Lagunen zorionak jaso eta gero "adituen" inpresioak jasotzea oso interesgarria eta hezigarria izango da".

TOMA FALTSUAK

Bukatu da trastoekin gora eta behera ibiltzea, gurpildun aulkiekin trabelinak egitea eta tomak errepikatu beharra. Laburmetraiaren muntaia besterik ez da falta eta lasai askotxo daude grabaketen gorabeherak gogortzen mahai baten inguruan. Entzunena, Imanolek, elektrikari ausartak, eginikoa "Ospitale zaharrean grabatzen geundela, foko bat erori eta Imanol jo zuen buruan. Zauritu egin zen eta korrikan joan ginen ospitalera arduratuta. Puntu batzuk eman eta berehala hasi zen berriro ere lanean". Lan egiteko gogo hau taldearen konexioan dagoela uste dute guztiek. "Tal-dearen lana da benetan garrantzia duena eta esfortzua egiteak pena merezi du". Aktoreak ados daude taldeko giro ona azpimarratzean. Denontzat lehen esperientzia izan bada ere, "Tal-de teknikoak erakutsi duen profesionaltasuna izugarria izan da - esaten du Kepa Gallegok- Aitor

"Horrelako lan bati errendimendurik handiena eteratzeko beti egin behar da erlojuaren aurka"
Aitor Agorria

aste gazte

■ DIPUTAZIOKO UDALEKU ETA OPORRALDIAK

• 7-13 urte bitarteko umei zuzendutako udalekuak uztaila, abuztua eta irailean. Aurreinskripzio epea: dagoeneko zabalik, apirilaren 23ra arte.

• 14-17 urte bitartekoentzat, egonaldi ezberdinak Iparraldean, Nafarroan, Zuazan, Toledon, Valencian,... eta ingeles udalekuak Seguran, uztailean eta abuztuan. Aurreinskripzio epea: apirilaren 24tik maiatzaren 7ra.

• 18-29 urte bitarteko gazteentzat, kirol abentura Hueskan, Leridan, mendi trabesia Aigues Tortesen, Iparraldea mendi bizikletaz, ingeles egonaldiak,... Inskripzio epea: ekainaren 2tik 27ra.

■ AUZOLANDEGIAK

• 15-30 urte bitartekoei zuzenduta, aurreinskripzioak Kutxan egin behar dira. Epea: apirilaren 14tik 22ra.

■ BEKAK

• Euskal Herriari buruzko ikerketa historikoa egiteko beka, Zumalakarregi Museoak deitua. Proiektuak aurkezteko epea: apirilak 30.

■ LANA

• Egues Araneko udalak aparejadore lanpostu bat deitu du. Epea: maiatzak 4.

• Lezoko Udalak, administrari laguntzaile lanpostu bat deitu du. Epea: apirilak 23.

■ LEHIAKETAK

• EHU-UPV, fantasi ipuin laburren V. unibertsitate lehiaketa antolatu du. Epea: maiatzak 15.

Informazio gehiagorako:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 77 00 65

niretzat kriston aurkikuntza izan da segurtasun handia transmititzen zuen eta". Lora guzti hauek jaso eta gero aipatutakoei akto-reengatik galdetu eta "ez diegu soldata gehiago jeitsi behar izan fin ibili direlako" bromeatzen du Agorriak. Oraindik lanaren zati garrantzitsua falta da: muntaia eta difusioa. Azken honetan dute ipinita taldekoek ilusioa. Laburmetraia gutxi egiten da Euskal Herrian eta are gutxiago euskaraz, baina herri telebistak eta ikusentzunezko lehiaketak irtenbide interesgarriak izan daitezke. Dagoeneko "taldeko batek Gasteizko lehiaketa ospetsuan irabazleen prentsaurrekorako diskurtso bat prestatuta du" esaten du barrez Agorriak. Hurrengoko laburmetrairako ere ideiak nahiko garbi dituzte "Oraingoan bi jipoi ematen diote aktore printzipaleetarik bati, baina bakoitzeko 12 toma hartu ditugula kontuan hartuta... hurrengoa amodiozkoa egingo dugu". ■

Marian Porcel

Fitxa teknikoa

- **Argi-operadorea:** Aitor Agorria
- **Kamara-operadoreak:** Manu Izagirre, Pako Altube
- **Elektrikoa:** Imanol Egjarte
- **Produktore exekutiboa:** Iñaki Arriola "Kiki"
- **Produktorea:** Xabier Alberdi "Sato"
- **Gidoia eta Zuzendaritza:** Jon Andueza
- **Dekoratzailak:** Kepa Altube, Javi Mayor, Danel Goikolea
- **Aktoreak:** Kepa Gallego, Aitor Aldabaldetretu
- **Aktore sekundarioak:** Irene Araguzo, Atxio Burgoa, Alfonso Alvarez "Lorillo", Ander Santiago, Iñaki Arriola "Kiki", Jon Andueza, eta extra bezala beste 20 bat lagun.

Istori honetako pelikula erreala da. Goiko lerroetan azaldutako leku, pertsonaia eta egoera guztiak benetakoak dira. Gogoz eta ilusioz egindako lanaren abentura da hurrengoa. 3,2,1, grabatzen....

Diru gutxirekin baina izugarriko gogoaz egin da Arrasateko lehen laburmetraia

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Maitena kalean duplexa salgai. Tel.: 79 61 09.

• Hiru solairuko etxe zaharra salgai. Oñatiko alde zaharrean kokatuta eta 107 m²koa. Prezio interesgarria. Tel.: 71 63 05. Eguerdiko 1etatik aurre-ara deitu.

• Erdialdean dagoen etxea salgai. 4 logela, 2 komun, saloi eder bat eta garaje itxia. Tel.: 79 42 13.

• Gasteiz erdian atikoa salgai. Egoera onean. Tel.: 79 01 26. Gaez deitu.

• Aretxabaletan pisua salgai. Erreformatuta eta erdi jantzita. Tel.: 79 25 71. Dei egin denda ordutegian.

2. Erosi

• Deba Garaian 60 m²ko apartamentua erosiko nuke. Dei egin gaez. Tel.: 79 23 60.

3. Errentan emateko

• Txaleta alokatzen da Salobreñasen (Granada). Hondartza ondoan dago. Tel.: 79 49 98.

• Playa de San Juanen (Alikante) pisua alokatzen da. Astebete, hamabost egun eta hilebeteka. Tel.: 79 49 98.

4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten. Tel.: 79 11 20.

• Alokatzeko pisu bila nabil Arrasaten. Tel.: 79 77 32 / 79 97 55.

5. Etxe konpartituak

• Logelak alokatzen dira erdialdean dagoen etxe batean. Tel.: 79 87 59. Tere.

• Pisu konpartitu baten gela bat nahi dut. Tel.: 79 96 10.

GARAJEAK

7. Saldu

• Roneoko etxeetan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.

9. Errentan emateko

• Garajea alokatzen da San Andre-sen. 65 m². Tel.: 79 13 52.

ETXEBIZITZAK

- Saldu
- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Etxe konpartituak
- Bestelakoak

GARAJEAK

- Saldu
- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

- Saldu

- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Bestelakoak

LANA

- Eskaintzak
- Eskaerak
- Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

- Eskaintzak
- Eskaerak
- Bestelakoak

MOTORRA

- Saldu

- Erosi
- Bestelakoak

DENETARIK

- Saldu
- Erosi
- Trukatu
- Eman
- Hartu
- Galdu
- Aurkitu
- Bestelakoak

HARREMANAK

- Agurrak
- Kontaktuak
- Deialdiak
- Bestelakoak



77 05 65

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press-ek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Roneoko etxeetan garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 19 64.

LOKALAK

12. Saldu

• Musakolako kiroldegia ondoan lokal komertziala salgai. 76 m². 8.300.000 pta. Negoziagarriak. Tel.: 79 59 75.

14. Errentan emateko

• Lokal komertziala eskuz aldatu edo alokatzen da, beheko eta lehene-go solairua. Tel.: 79 18 00 / 77 08 97.

15. Errentan hartzeko

• Lokala alokatuko genduke lagun artean erabiltzeko. Tel.: 79 35 50.

16. Bestelakoak

• Erdiko kaleko bi solairuko lokal komertziala traspasatu egiten da. Tel.: 78 18 00.

LANA

17. Eskaintzak

• Neska euskaldunak etxeko lanak egin edo umeak zainduko lituzke. Tel.: 79 98 96.

• Neska gertu umeak zaintzeko. Tel.: 79 25 52.

• Esperientziadun neska kamarero lanak egin edo umeak zaintzeko gertu. Tel.: 79 95 92. Rakel. Gauetan.

• Andra euskalduna umeak edo pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 79 07 73.

• Esperientziadun neska gertu, denda, atarte edo tabernak garbitzeko. Tel.: 79 64 46.

• Etxeko lanak egin edo umeak zainduko gertu. Tel.: 79 42 03. Maite.

• Esperientzia eta arduradun emakumea pertsona nagusiak zainduko lituzke. Tel.: 79 05 90.

• Arratsalde lan egingo nuke umeak zaintzen edo etxeko lanetan. Tabernetan lan egiteko ere gertu nago. Tel.: 79 77 79.

• Neska gertu etxeko lanak egin eta umeak zainduko. Tel.: 79 94 62.

• Klinika laguntzailea eta geriatrian titulodun andra pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 79 34 53.

• Emakume gaztea gertu etxea, atarteak edo bulegoan garbitzeko. Tel.: 79 59 75. Agus.

• Esperientziadun neska etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 945 - 44 52 79.

18. Eskaerak

• Pertsona bat behar da bi ume zainduko edo etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 03 26. Gaez deitu.

• Arrasateko ilepaindegj batean estezitza behar da. Tel.: 77 07 66.

• Neska euskalduna behar da etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 22 92. Dei egin 2.30etatik 7etara.

• Sukaldaria behar da. Tel.: 79 68 57.

• Neska behar da tabernan baten lan egiteko. Deitu 3etatik 5etara. Tel.: 79 00 34.

• Hiru edo lau hilebeterako elektrizita bat behar dut tentsio bajuko berifikazioak egiteko. Tel.: 907 41 89 71. Santi.

19. Bestelakoak

• Gauetan eta ezkontzetan jotzen duen musika taldeak gitarrajolea behar du. Tel.: 79 96 56. Iban.

• Gazte talde batek ezkontzatan abestuko luke. Oso merke. Tel.: 79 79 85.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako klase partikularrik ematen dira euskaraz edo erdaraz. Tel.: 79 40 57 / 79 98 68.

• Ingeleseko klase partikularrik ematen dira. Tel.: 77 02 74. Ana.

• Alemaneko klase partikularrik eman edo itzulpenak egingo nituzke. Tel.: 71 63 05. Eguerdiko 13etatik aurrera.

• Esperientziadun neska lanur bat goizetan klase partikularrik emateko gertu. Tel.: 79 06 39.

21. Eskaerak

• Matematika irakatsiko didan irakasle partikularra behar dut. Ikasgaiak: algebra, analisisa, logika mate-

matikoa eta matematika. Tel.: 79 77 59. Gaueko 10.30etatik aurrera. Fernando.

• Internet-eko klase partikularrak hartuko nituzke. Arratsaldez edo gauez. Tel.: 79 55 04.

• Zergatan aditua den laguna behar da eskolak emateko. Tel.: 79 32 54. Iñaki.

MOTORRA

23. Saldu

• Lada Niva kotxea salgai. Tel.: 79 66 52.

• BMW R-65 motorra salgai. Txuria, erurera berri berriak. Oso egoera onean. 260.000 pta. Dei egin 79 97 60 telefonora eta utzi mezua, nik deituko dizut.

• Peugeot 205 TD salgai, SS-AM. ITVa 99ra arte pasatuta. Prezio interesgarria. Tel.: 79 78 10 / 77 14 04.

• Renault 11 TXE salgai. SS-AC. Tel.: 76 08 51.

• Vespa 200 motorra salgai. VH. Tel.: 76 08 51.

• Yamaha Virago 1.100 motorra sal-

gai. SS-AJ. 1990 urtekoa. Extra asko ditu eta egoera onean dago. 700.000 pta. Tel.: 79 61 89.

• Opel Kadet GSE salgai. SS-X. Prezio interesgarria. Tel.: 79 74 10.

• Opel Corsa GT. Tel.: 79 93 75 / 79 22 50. 8 urtekoa. Egoera ona.

• Renault 11 TX autoa salgai. SS-AC. Tel.: 76 08 51.

DENETARIK

26. Saldu

• Peavey Combo baxu amplifikatzailea salgai. Prezioa: 60.000 pta. Tel.: 79 16 36. Toño.

• Portaeski eta kotxe gainean jartzeko parrila salgai. Tel.: 79 00 99.

• Ingalaterrara bidaia 170.000 pta.tan. Amaia. Tel.: 79 53 58.

• Cibro markako berogailua eta Fagor markako ur berogailuak salgai. Tel.: 79 81 25. Gauez.

• Soprani markako soinua daukat saltzeko. Tel.: 79 82 06.

• Butaka relax salgai. Tel.: 79 22 92.

• Zapatak konpontzeko aintzinako makina salgai. 100.000 pta. Tel.: 79 81 70 / 71 50 72.

• Aluminiozko bizikleta salgai. XT piezak ditu. 50.000 pta. Tel.: 79 70 96. Felix.

• 4/5 lagunendako kanpinerako Sango markako karro-denda salgai. Tel.: 79 15 96.

• Harategiko 3 gondola, kuttxa erregistratzailea, markatzeko 2 makina, pisu elektronikoa, okindegiko mostreadorea eta dendetarko tresna gehiago salgai. Merke-merkeak. Tel.: 79 59 75.

• Igloo markako denda salgai. 5 lagunendako. Egoera onean dago. 8.000 pta. Tel.: 71 52 38. Maider.

• Auto barruan umea eramateko aukia salgai. Tel.: 79 44 14. 8etatik aurrera deitu.

27. Erosi

• Ura purifikatzeko Biozon (Fagor) aparailua etxean bazterturik baldin badaukazu, merke erosiko nuke. Dei egin gauez. Tel.: 79 17 88. Karmen.

• Bigarren eskuko argazkiak proiektatzeko tresna erostea gustatuko li-

tzaidake. Tel.: 79 55 88.

29. Eman

• Lau urteko txakur txikia oparitzen dut. Tel.: 79 60 61. Mari Paz.

31. Galdu

• Eroskiko aparkalekuan zapi urdin bat topatu baduzu dei egin 71 44 56 telefonora. Esker ordaina egongo da.

32. Aurkitu

• Poltsa bat aurkitu nuen Urkulun, apirilaren 29an, zapatua. Jabeak, gaueko 8etatik 10etara deitu dezake. Tel.: 77 00 18.

HARREMANAK

36. Deialdiak

• 38.urteko kintoei deia: Urte hone-tan egiten ditugu 80 urte eta uste dugu denak elkartzea eta bazkari on bat batekin eguna pasatzea gauza ona izango zela. Ea ba norbait egun hau antolatzen animatzen den. Angel Erguin. Tel.: 28 57 15.

LORAMENDI




Udaberriaz gozatu
eta orain...
Trabelarekin
puntuak irabazi!



■ Moises Cruz

MALTZAGA-URBINA SASKIBALOI TALDEKO JOKALARIA



1. Zein da zure horoskopoa? Aries.
2. Sinestuna zara? Bai.
3. Animalia bihurtzekotan?
Txakurra, dobermana.
4. Zure akats bat/gauza on bat? Ez naiz garaiz heltzen/Lagunak erraz egiten ditut.
5. Zerk lotsarazten zaitu? Kaletik noala umeak begira geratzea.
6. Amets bat? Nire anaiak beisboleko liga profesionalean jokatzea.
7. Gertakizun historiko bat? Colom-ek Amerika aurkitzea.
8. Nor miresten duzu? Nire ama.
9. Zeri diozu beldurra? Emakumeei.
10. Zertaz damutzen zara? Ezertaz.
11. Negar egin duzun azken aldia?
Arrasaten jokatu nuen partidua batean.
12. Zer falta zaio Arrasateri? Neska polit gehiago.
13. Eta zuri? Denbora.
14. Lanbidez aldatzekotan? Abokatua.
15. Arrasateko gustoko toki bat?
Iturripeko kiroldegia.
16. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Etorri nintzanean lehenengo sailkatuko ginela esan nuen, baina hori ezinezkoa izango da.
17. Zein egunkari irakurtzen duzu? *El Correo* eta *Diario Vasco*.
18. Gustoko janari bat? Arroza, haragia, abitxuelak.
19. Liburu on bat? Martin Luther King-en bibliografia.
20. Filmerik onena/txarrena? *Breakheart/Los chicos del barrio*.
21. Musika talderik onena/txarrena? Enrique Iglesias/Ez dakit.
22. Telebistako programarik onena/txarrena? *Gracias por todo* eta *Parodia Nacional*/Ez dakit.
23. Egin dizuten oparirik politena? Nire neskalagunak oparitu zidan postala.
24. Denbora libre zertan pasatzen duzu? Telebista ikusten.
25. Oporretarako toki bat? Dominikar Errepublika.
26. Etxeko lanik gorrotagarriena? Ontziak garbitzea.
27. Gomendio bat? Ez erre hainbeste tabernetan.
28. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? NBA-n jokatzeagatik.
29. 200 milioi irabaziz gero? Txalet bat erosi Miamin.

1 975eko apirilaren 7an jaio zen La Romanan, Dominikar Errepublikan. Batxilergoa bukatu eta gero, EEBBtara joan zen eta han enpresa ikasketak egin zituen bi urtez. Ez dago ezkontuta. Orain dela hilabete eta erdi alaba bat izan du. "Mo" ezizena jarri zioten EEBBtan Moises ez deitzeagatik, eta Arrasaten ere horrela deitzen diote.



ZARAYTZ ALTZARIAK

Olarte kalea, 35
ARRASATE
Tel.: 79 28 44

Apirilak 23, Liburuaren eguna

Liburuaren eguna eta irakurzaletasuna

Apirilaren 23an Liburuaren Eguna, apirilaren 2an Haur Liburuaren Eguna. Data guztiakin gertatzen den bezala, hausnartzeko parada eta ohiko galdera datorkigu burura. Irakurtzen da? Orain lehen baino gutxiago ala gehiago? Lerro hauek ez dute auzia konponduko baina, agian, gaia argitzeko kontuan izan behar ditugun "poxpoluak" eskuratzeko balioko dute akaso.

Gauza jakina ez bada ere, irakurtzeko gozamen txikitik has daiteke, familia giroan hain zuzen ere. Esarak dienez, irakurlea ez da berez jaiotzen, biziarekin batera haziz joaten da, heziz azken finean. Horrela, pazientzia handiarekin erakusten zaizkio haurrari ohitura ezberdinak. Irakurzaletasunari dagokionez, etxetik aparte badaude beste erakunde batzuk bultzakada galanta eman dezaketanak, alegia, eskola eta liburutegiak.

Frogatuta dago hurrek, egun, orain dela 20 urte baino gehiago irakurtzen dutela: haur gehiagok liburu gehiago irakurtzen du, baina 14-25 urteko gaiztean artean eskulako beherakada igartzen da. Ezin daiteke esan adin tarte horietan gogoz eta atseginez irakurtzen dutenik. Zer gertatzen da orduan?

Azkenengo estatistiken



arabera, biztanlegoaren %50ak ez du liburu bat ere irakurtzen urtean zehar. Pertsona horien etxeetan, seguruenik, apal asko ez dira liburuarekin beteko; beraz, nola transmititu irakurzaletasuna haurrak inoiz ez baditu gurasoak leitzen ikusi?

Esaten den bezala, politika gauza garrantzitsuegia da bakarrik politikoen eskuetan uzteko; horrela, irakurzaletasuneko familiaren heziketa funtsezkoa izanda ere, honekin soilik ezin da gorde.

Horregatik, eskola da gizarteko bigarren erakunde nagusia irakurtzeko ohituraren prestakuntzan. Paradoxikoki, irakasle batzuk ez dira larregi arduratzen gaur egungo literaturaz; irakurtzen irakasten dute, baina hezkuntza mailan

ez zaio haurrari irakurtzeko plazerra transmititzen. Horrela, ez da harrigarria ikustea nola gazteek irakurketa funtzionala egiten duten soilik, hots, irakurtzen jakin bai, baina irakurketa ulergarri, sormenezko eta kritikoa egiteko gai ez dira izaten.

Sozietatean erroturik daukagun baliabide asko erabil ditzakegu irakurtzeko gogoia sustatzeko. Adibidez, komunikabideek, gai honi dagokionez, zeregin handia dute.

Ez daukagu telebistan programa atseginik liburuaren inguruan. Irakurtzea gauza astun eta aspergarria bezala ulertzen bada, ez da ezer lortuko. Magazin entretenigarri bat egin eta eskainiz gero, izugarritzko eragina izango luke. Horretarako, hezkuntza

literarioa eman dezaketen programa atseginak behar ditugu.

Gure herriko komunikabide gehienetan gai honi ez zaio garrantzi handia ematen, normalean kultura hitzarekin gauza ezberdin ugari zaku berean sartzen direlarik.

Amaitzeko, administrazioa eta politika mailan proiektu kulturalak finkaturik gabe daude. Adibide batzuzekin islada daiteke esandakoa: Hego Euskal Herrian Liburutegiari buruzko legea egiteko dago oraindik, eskola-liburutegiek oso egoera eskasetan daude ez dute eta Hezkuntza Saitetik laguntzarik jasotzen, e.a.

Benetan zail daukagu irakurzaletasuna bultzatzea ofizioa daukagunok, aurretik ez badira baldintza batzuk betetzen, kultura eta liburuari lehentasun sozio-politikoak ematen ez zaion bitartean. Zerbitzu kulturalak eskaini behar dira jendeak beharra sentitzeko. Ezereza eta hutsunea bada nagusi, aurrerapausorik ez dago, gizartea garapenik gabe geratuko litzateke. Liburua egunerokotasunean sustraitua egotea, guztion bizitzan: hauxe da gure desioa. Horrela izango balitz, ez genuke behar Liburuaren Egunik.

Monterrongo bibliotekariak

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
 Ferrerías, 35 ARRASATE
 Tel.: 77 13 78

AGR
Pavimentos AGR
EGURREZKO AROZTEGIA
 Mota guztietako zoruak
 Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
 Lehoiak • Ateak
 Eskailerak • Armairu enpotratuak
 Eta abar
MATERIALEN SALMENTA
 Erakusketa eta almazena:
 Kale Txiki, 3 - behea
 Tel.: 77 11 20
 Faxe: 77 11 20
 ARRASATE

SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!
 Erdiko kale, 42
 Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

■ **Horoskopoa**

- **Aries** Altxor handirik ez duzu topatuko, beraz lasai. Ah, zorionak!
- **Taurus** Harroegia zara, atseginagoa izan beharko zenuke.
- **Gemini** Zelaian etzan eta zerura begiratzea komeni zaizu.
- **Cancer** Urruti, oso urruti, argi izpi bat ikusten da.
- **Leo** Izarrek ere keinu egiten dizute. Zoragarria zara!
- **Virgo** Ezerk ez zaitu asetzen? Egia da hori?
- **Libra** Jaiak ate joka, eta zuk dantzan ikasi ez.
- **Scorpio** Nabarmena da maiteminduta zaudela.
- **Sagitaris** Pasioak lur jota uzten zaitu. Zer egingo diogu.
- **Capricorn** Negarrez eta triste aurpegi jarrita ez dira arazoak konpontzen.
- **Aquarius** Itxura denez begiak itxita joaten zara kaletik.
- **Piscis** Martxa honetan kasko bat jantzi beharko duzu.

■ **Gurutzegrama**

1	2	3	4	5	6	7
8					9	
10			11			
12		13				
14					15	
16		17	18	19		
20						

JUAN BAUTISTA AGORRIA


Horizontalak 1. Mikel, ATBko *Alkaterekin Berbetan* programako aurkezlea. 8. Batez ere. 10. Osasunerako Mundu-Erakundea. 11. Adio. 12. Hots-multzo ozen eta nabaria. 14. Gerraren jainkoeskandinaviarra. 15. Singularreko bigarren pertsonaren izenordaina konfindantzako era. 16. Tantaloa. 17. Erromatik pasatzen den ibaia. 20. Itsasuntziak egin edota konpontzeko instalazio-multzoa.

Bertikalak 1. Inozo bihurtu. 2. Mahomatar urtearen bederatzigarren hila. 3. Ur gainean hondoratu gabe dea higituz. 4. Singularreko bigarren pertsonaren errespetuzko era. 5. (Ald.) Salgaien legezko prezioa. 6. Letoniako hiriburua. 7. Distira. 9. Alfabetoko hamazortzigarren letraren izena. 13. Pertsona baten airea, itxura. 15. Laguntza eskatzeko erabiltzen den oihua. 18. Bi, erromatar erara. 19. Errepikatuz, lelo.

Antz. 15. Hel. 18. II. 19. Bo.

Bertikalak: 1. Inozotu. 2. Ramadan. 3. Igeri. 4. Zu. 5. (Ald.) Tasa. 6. Riga. 7. Dirdira. 9. Ku. 13. Tiber. 20. Unitziola.

Horizontalak: 1. Itzar. 8. Nagusiki. 10. OME. 11. Agur. 12. Zarata. 14. Odm. 15. Hl. 16. Ta. 17.



WERU®
Ate + leihoak




ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 79 24 12 eta 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVCko ate eta
leihoez gain:
Moketak jartzea,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, textila...



Mikel Lizarralde eta Eduardo Abasolok egiten dute "Bi zoro eta zu" irratsaioa.

"Bi zoro eta zu" zapatu goizeko irratsaiooko bi zoroak

Orain dela hilabete t'erdi irratsaio berri bat hasi zen Arrasate Irratian. "Bi zoro eta zu" izenburua jarri diote saio-aren zuzendariek, Mikel Lizarralde eta Eduardo Abasolok. Mikelek 18 urte ditu eta UBI ikasten dabil; Eduardok 22 eta Andoainean ari da irudi eta soinu ikasketak aurrera ateratzen. Bi gazteak Daniel Calparsororen "A ciegas" filmearen grabaketan ezagutu zuten elkar, extra

lanetan zebiltzanean. Mikelek Eduardori irratian lan egiteko gogoia zuela esan zion eta Eduardo Arrasate Irratian bekario gisa ari zenez, "Bi zoro eta zu" irratsaioa sortu zuten. Zapaturgo goizeko 10etatik 11etara emititzen dute euren saioa. Efemerideak, zineko azken pelikulen sinopsiak eta kritikak, musikari eta artistei buruzko txutxumutxuak... gauza asko ikutzen dituzte. Musi-

ka ere jartzen dute eta Eduardok astero gai bat aukeratu eta horri buruzko informazioa zabaltzen du.

Horrez gain, astero txandakatu, al baitari bat, feminismoari buruz hitzegiten duen emakume bat, sexologo bat eta estetizien bat izaten da eurekin entzuleen galderei erantzuteko. Momentuz ez dute audientzia neurketarik egin, baina Mikel eta Eduardo baikor daude.

Arrasate Irratia FM 107.7

Egunero

9.00 Albisteak
9.30 Goizoro
magazina
14.30 Bixau orduan

Astelehena

22.00 Caravansera
musika saioa

Asteartea

22.00 Euskal Festa

Asteazkena

22.00 KK2A

Osteguna

21.00 Adi Egon
22.00 Txerrendantza

Ostirala


22.00 KGB
informatika saioa

Larunbata

9.30 Jailarai
umeendako saioa
10.00 Bi zoro eta zu
(magazina)
11.00 Zoroklasikoak
musika klasiko saioa.

■ ATBko asteko programazioa

18 Ostirala	21 Astelehena	22 Asteartea	23 Asteazkena	24 Osteguna	25 Ostirala
20/20.30/21.00 Berriak	13.30 Astebete (Errep.)	13.30 Mondrasport (Errep.)	13.30 Lotsa Barik (Errep.)	13.30 Alkatearekin berbetan (Errep.)	13.30 Kukaratxa Motel
21.30 Astebete	20/20.30/21.00 Berriak	20/20.30/21.00 Berriak	20/20.30 Berriak	20/20.30/21.00 Berriak	20/20.30/21.00 Berriak
	21.30 Mondrasport	21.30 Lotsa Barik. Joxan Sagastizabal	21.00 Alkatearekin berbetan	21.30 Kukaratxa Motel	21.30 Astebete



Gaur egun San Victor Ikastola denaren ikasle ohien lehen Zuzendaritza Batzordea aste honetako argazkian. Argazkia orain 33 urtekoa da, ikastetxearen

zilarrezko eztaiak ospatzen ziren urte berean ateratakoa.


Ezkerretik eskumara, zutik: Luis Maidagan, Jose Mari Kortabarria, Alfonso Arzamendi, Simon Arregi, Juan Aranburu, Eduardo Roa, Alberto Arregi eta Inaxio Uriona.

Jarritakoak: Jabier Etxebarria, Clemente Lopez Cano, Imanol Bolinaga (Zuzendaritzaren lehendakaria), Alberto Martinez de Ubago (Ikastetxeko zuzendaria), eta Juan Olalde.

Ikastetxearen zilarrezko

eztaien ospakizunei ekainean eman zitzaizkien hasiera. Meza, jolasak, lagun arteko bazkaria, luntxa Udaletxean, eta pilota partiduak ere egon ziren.

Urtea: 1964



Modelo profesionalak!



ILEAPAINDEGIA

Corbea, 2 behea • ARETXABAETA • Tel.: 77 09 44

Show ikusgarria!

Bueltan gatoz.

ILEAPAINGINTZA DESFILEA

MAGNA diskotekan (Azeri kalea, 7)

Gaur apirilak 18 (ostirala), gaueko 9etan

Sarrerak: Aurrez, Lorategi tabernan eta desfile egunean takilan

ETXEMOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

LOGELETAN
espezializatutako merkatal zentrua

47 urteko esperientzia duten profesionalek sortu eta zuzendutakoa



Araba Etorbidea, 5
(ESKATU Pabilioia,
San Andres auzoa)
Tfnoa. FAXA: 79 41 82
ARRASATE

Larunbat
arratsaldetan
zabalik!!



Dena ETXEMOBELen. Batetik, kalitate eta diseinu handieneko logelak,
garantia osoarekin. Bestetik, logela merkeen artean merkeenak.

BENETAN HARRIGARRIA!!

Mégane

Scénic

Familia guztiarendako.



Laster MECAN!



RENAULT
E C A